

Kontzeju

Oñatiko Udal aldizkaria | 2016ko Azaroa | 266. zenbakia



www.oñati.eus



Berbia Oñati



@BerbiaOñati



Boletina



Oñati Irratia

DELIAK

GOMIZTEGIKO HARROBIA
kezka iturri, berriz ere
Aridos Aloñak harrobiaren azalera bikoiztu egin nahi du



KATASTROARI BURUZKO INFORMAZIO BULEGOA

Foru Aldundiak onartu dituen katastro-balio berrien inguruko zalantzak argitzeko informazioa bulegoa zabaldu du Udalak herritarren zerbitzura

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan (Kontribuzioa) ordaindu beharko dugun kuota ere azalduko digute bertan

Gipuzkoako Foru Aldundiak berrikusi egin ditu Hiritar izaerako Ondasun Higiezinaren (lurzoru eta eraikin erresidentzialak, industrialak eta zerbitzuetakoak) katastro-balioak herrialdeko udalerri guztietan.

2001ean egin zen balio katastralaren azken eguneraketa eta, beraz, gaur egungo merkatuko prezio errealek egokitzeke unea dela erabaki du diputazioak.

Irizpide orokor bezala, katastro-balio berriak merkatu-balioaren %80an finkatu ditu. Oñatiri dagokionez, lurzoru eta eraikin erresidentzialen balio katastral globala %8,20 igotzen da, eta, aldiz, industria eta zerbitzuetako ondasunen balio globala %24,27 jeisten da.

JAKINARAZPENAK

Foru Aldundiak gutun bana bidaliko die zergadun guztiei, beraien ondasunen katastro-balio berriak jakinaraziz.

Horren inguruan herritarrek izan ditzaketen zalantzak argitzeko, eta 2017ko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan ordaindu beharko duten kuota azaltzeko informazio bulegoa egokituko du udalak.

Bertara joan baino lehen txanda eskatu behar da.

Bulegora joan baino lehen txanda
eskatu behar da telefonoz



Udaletxeko areto nagusian (lehenengo solairuan) egokitu dute informazio bulegoa

TXANDA ESKATU BEHAR DA
943783488 ZENBAKIRA DEITUTA

Urtarrilerarte egongo da zabalik informazio bulegoa
udaletxeko areto nagusian, astegunetan
(10:00-14:00 / 17:00-19:00) eta larunbatetan (9:00-13:00)

**Lurzoru eta eraikin
erresidentzialen
katastro-balio globala
%8,20 igotzen da Oñatin**



**Industria eta zerbitzuetako
lurzoru eta eraikinen
katastro-balio globala
%24,27 jaisten da Oñatin**

Zer da katastro-balioa? Zertan eragiten du?

Gure ondasun higiezin (lurzoru eta eraikin erresidentzialak nahiz industrialak) balio fiskala da katastro-balioa. Hau da, administrazioak gure ondasun higieziinei ezartzen dien balioa da.

Balio hori higiezin bakoitzerako zehazten da, kontuan hartuz higiezin bakoitzaren ezaugarriak (azalera, produkzioarako gaitasuna, erabilera, eraikinaren antzinasuna, kalitatea...) eta udalerrian duen kokapena, besteak beste.

Katastro-balioa hainbat zerga eta tasa kalkulatzeko oinarria izaten da. Horien artean aipagarriena da urtero udalari ordaindu behar izaten diogun Ondasun Higiezin gainerako Zerga (OHZ/IBI, edo Kontribuzioa bezala ere ezagutzen dena).

Baina Foru Aldundiaren eskumenekoak diren beste zerga batzuei ere eragiten die, hala nola: Ondarearen gainerako zerga; Oinordetza eta dohantzen gainerako zerga; Pertsona fisikoaren errentaren gainerako zerga... eta baita Hirilurren balio gehikuntzaren gainerako udal zergari ere.

**OHZ zerga
(kontribuzioa) %2
igotzen da Oñatin
2017an**

Oñatiko katastro-balio berriak

Irizpide orokor bezala Foru Aldundiak erabaki du katastro-balio berriak merkatu-balioaren %80an finkatzea.

Horretarako, merkatu azterketa bat egin du diputazioak herriz herri, eta hauek dira ondorio nagusiak, Oñatiri dagokionez:

- Lurzoru eta eraikin erresidentzialen balio katastral globala %8,20 igotzen da.
- Industria eta zerbitzuetako lurzoru eta eraikinen balio katastral globala %24,27 jaisten da.

Horrek ez du esan nahi Oñatiko etxebizitza guztien balio katastrala %8,20 igotzen denik; batzuen gehiago igotzen da, eta beste batzuen gutxiago, baina, orotara, eraikin eta lurzoru erresidentzial guztiak kontuan hartuz, katastro-balioa %8,20 igotzen da.

Lurzoru eta pabilioi industrialei dagokienean ere berdin. Batzuen balioa gehiago jaitsiko da, eta beste batzuen gutxiago; baina, oro har, Oñatiko lurzoru eta eraikin industrialen balioa %24,27 jaisten da.

Oñatiko udalaren alegazioa

Udal gobernu taldea ez dago ados Oñatiko industria eta zerbitzu erabilerako ondasunentzat Foru Aldundiak ezarri dituen balio katastral berriei (%24,27ko jeitsiera). EH Bilduk dio merkatu azterketa egiteko ez dela Oñatiko industri izaerako ondasun bakar bat bera ere aztertu.

Bestalde, udalak gogorarazi du 2001-2008 artean hazkunde ekonomiko nabarmena eman zela Oñatin (lurzoru eta eraikin industrialak garestituz), eta 2008tik aurrerako krisiaren eragina ez dela inguruko herrietan bezain larria izan Oñatin (produktzio indizearen jaitsiera ez da hain nabarmena izan).

Udal gobernuak gogorarazi du, gainera, 2001-2016 artean AP1 autopista bere osotasunean ireki dela, eta horrek ere eragina duela lurzoruaren eta eraikinen prezioan.

Hori guztia kontuan hartuz, udal gobernu taldeak alegazioa aurkeztu zuen Foru Aldundiko Ogasunean, industria-zerbitzu guneetako 2016ko balio katastralak mantentzea eskatuz, baina diputazioak ez du onartu.

%2ko igoera Kontribuzioan

Goian esan dugun moduan, katastro-balioak hartzen dira oinarri bezala Udalari urtero ordaindu beharreko Ondasun Higiezin gainerako Zerga (OHZ/IBI) edo Kontribuzioa kalkulatzeko. Gero udal bakoitzak erabakitzen du zein tipo edo indize aplikatzen dion balio katastralei, herritar bakoitzak ordaindu beharreko zerga edo kuota finkatzeko.

2017ko OHZ/IBI zergari begira, Oñatiko udalak erabaki du %2ko igoera orokorra aplikatzea ondasun higiezin guztietan; bai erresidentzialetan, eta baita industria-zerbitzuetakoetan ere.

Horrek esan nahi du, ondasun erresidentzialei aplikatzen dien OHZ tipoa jaitsi egingo dela (2016koarekin alderatuz), balio katastralean eman den %8,20ko igoera leuntzeko; eta, aldiz, industria eta zerbitzuetako ondasunei aplikatzen zaion OHZ tipoa igo egingo da, balio katastralean eman den %24,27ko jeitsiera konpentsatzeko.



GOMIZTEGIKO HARROBIAREN AZALERA BIKOIZTU EGIN NAHI DU ARIDOS ALOÑAK

Udala eta 'Arantzazu Defenda Dezagun' taldea aurka daude

ARIDOS ALOÑA S.L. ENPRESAK HARROBIA HANDITZEKO BAIMENA ESKATU DU, 300 METRO LINEAL KORTAKOGAIN ALDERA. JAURLARITZAK INFORMAZIO PUBLIKOAN JARRI DU HARROBIA HANDITZEAK ERAGINGO LUKEEN INPAKTUARI BURUZKO AZTERKETA, ENPRESAK AURKEZTUTAKOA. TXOSTENAK DIOENEZ "EZ DA INGURUMEN ERAGIN GARRANTZITSURIK GERTATUKO". OÑATIKO UDALAK EZ DU INOLA ERE HARROBIA HANDITZERIK NAHI. EH BILDUREN IRITZIZ EZ DA ONARGARRIA 'NATURA 2000 SAREA'K BABESTUTAKO EREMU BATEAN HARROBI JARDUERA BAIMENTZEA

Gomiztegiako harrobia kezka eta eztabaida iturri dugu berriz ere. Berau ustiatzen duen Aridos Aloña S.L. enpresak handitu egin nahi du harrobia eta baimena lortzeko urratsak ematen ari da Jaurlaritzan. Enpresaren proiektua onartuko balitz, harrobiak 40.000m²-ko azalera berria

hartuko luke (300 metro lineal) Kortakogain aldera).


Jaurlaritzak jendeagirian jarri du ingurumen-inpaktuari buruzko azterketa (enpresak aurkeztutakoa). Txostenak dioenez "ez omen da ingurumen eragin garrantzitsurik gertatuko". Oñatiko udala ez dago ados, eta hainbat alegazio aurkeztu dizkio txos-

40.000
M²-KO
AZALERA
BERRIA
HARTUKO
LUKE
HARROBIAK

tenari, bio-ingenieritzan aditua den Mercedes Valenzuelaren aholkularitzarekin.

Alegazio horietan esaten da, Aridos Aloñak aurkeztu duen inpaktu-azterketa orokorkerietan oinarritzen dela, eremuaren berezitasunak eskatzen duen azterketa zientifikoa oinarritu ordez. Ez da inolako azterketarik

NATURA 2000 SAREAK BABESTUTAKO EREMUA



**Itzal berdeak Aizkorri-Aratz natur
parke barruan dagoen eremua
erakusten du, eta irudiak
erakusten duen moduan, parke
naturalaren mugak finkatu
zirenean (2006), kanpoan geratu
zen Gomiztegiko harrobiarentzat
aurreikusten zen handitze eremua.
Baina 2007an Europa mailako
Natura 2000 Sarearen mugak
finkatu ziren (marra gorritz
adierazita dago planoan), eta
irudian ikus daitekeenez
harrobiaren handitze eremua
Natura 2000 sarearen barruan
dago, kontserbazio bereziko
eremu bezala sailkatuta.**

aurkezten harrobiak Gomiztegi inguruko sistema hidrologikoan izango lukeen eraginaren inguruan; ez da azterketa zehatzik egiten interes komunitarioko landare eta animalien inguruan; eta ez da alderaketarik egiten gaur egungo paisaia eta ustiapenaren ondorengoaren artean, besteak beste, udal gobernu taldeak azaldu duenez.

Valenzuelak asierazi duenez, enpresak aurkeztu duen inpaktu azterketarekin ezin da erabaki harrobia handitzearen eragina

larria izango den ala ez, gabezia handiak dituelako, eta ez du uste Jauralaritzak bere horretan onartuko duenik.

BABESTUTAKO EREMUA

Udal gobernua gogorarazi du harrobiak hartuko lukeen eremu berriari hainbat babes neurrik eragiten diotela; hala nola, 'Natura 2000 Sarea'ri buruzko Europako zuzentarauak, Aizkorri-Aratz natur parkearen babeserako legeak, Aldundiaren Mendietako Foru Arauak eta

ARIDOS
ALOÑAK
AURKEZTU
DUEN
INPAKTU
AZTERKETAK
GABEZIA
ASKO DITU
ADITUEN
USTEZ

Oñatiko Udaleko Arau Ordezkoek. “Hori guztia kontuan hartuz, garbi dago zaindu eta kontserbatu beharreko gunea dela eta, beraz, ez da onargarria harrobi jarduera baimentzea halako babes maila duen eremu batean” adierazi du EH Bilduk.

Horren aurrean naturaren
babeserako irizpideak lehenetsi
eta harrobia handitzeko eskaera
bertan behera uzteko eskatu dio
Udalak Jauralaritzari. Mikel Biain

(hurrengo orrira)

alkateak adierazi du urgentzia-ko bilera eskatuta daukala Ingurumen sailburuordearekin.

Udal gobernu taldeak uste osoa du Ingurumen Inpaktuaren txostenari aurkeztutako alegazioak aintzat hartuko dituela Jaurlaritzak; bestela, ez du baztertzen epaitegietara jotzea.

EAJren udal taldeak adierazi du Aridos Aloñaik aurkeztu duen handitze proiektuaren aurka dagoela, eta bat egiten duela udalak aurkeztutako alegazioekin. Hala ere, hau bezalako gai potolo bat Jaurlaritzako ordezkariekin zuzenean landu beharrekoa dela adierazi dute jeltzaleek.

HANDITZE PROIEKTUA

Aridos Aloña S.L. enpresak aurkeztu duen proiektuaren arabera, Gomiztegiko harrobia 300 metro lineal luzatuko litzateke Kortakogain aldera, eta 40.000 m²-ko azalera berria hartuko luke.

Proiektu hau oinarritzen da Aridos Aloñaik Jaurlaritzako Ingurumen sailarekin eta Meatzetako zuzendaritzarekin 2006an sinatutako akordioan. Bertan jasotzen da harrobiak gaur egun hartzen duen eremuan 30-35 metroko lur-errenkada bat mantenduko dela ikutu gabe errepide bazterrean inpaktoa gutxitzeko; hau da, pantailarena egin dezan eta harrobia ahalik eta izkutuen gera dadin. Trukean, harrobia mendebalderuntz (Kortakogain aldera) handituko litzateke, 8 hektarea inguruko eremu berria hartuz.

Bestalde, egun Arantzazuko errepide bazterrean dauden instalazioak harrobiko plaza barrura eramango litzuke enpresak, proiektu berriaren arabera.

'ARANTZAZU DEFENDA DEZAGUN' PLATAFORMA

Harrobia handitzeari ez esateko ARRAZOIAK

Arantzazuko auzotarrak eta beste hainbat talde biltzen dituen 'Arantzazu Defenda Dezagun' izeneko plataforma aurkeztu zen urriaren 27an. Gomiztegi-Arantzazuko harrobiak gaur egun duen 52.300m²-ko azalera 100.000m²-ra bikoiztuko lukeen handitze proiektuari aurka dago honako arrazoietan oinarrituta:

- Ingurune natural honek dituen baloreak bultzatzeko Udalak, Debagoieneko Mankomunitateak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak urteetan egin dituzten esfortzuak kontutan hartuta, ezin da ulertu nola baimen dezaketen balore hauen kontra doan proiektu hau.
- Proiektu berriak hartzen duen eremu hau Aizkorri-Aratz parke naturalaren Periferiako Babes Zonan kokatzen da, eta Natura 2000 kontserbazio Bereziko Eremu Sarean sartua dago (ES2120002 Aitzkorri-Aratz). Beraz, Red Natura 2000 babesten duten Eurokako legedia aintzat hartuta proiektu hau ezin da onartu.
- Ingurune hau aldatzen bada, arriskuan ipiniko ditugu Natura 2000 eremuaren osoa, interes handiko Habitata eta babestutako espezieak.
- Sortuko duen hautsak inguruko zelai, akuifero eta babestutako floran izango duen eragin kutsatzailea handia izango da.
- Akuifero garrantzitsuak dituen unitate hidrologikoa izanik, egungo ur dinamika guztiz aldatuko du.
- Legeak, harrobiak etxebizitzetatik gutxienez 2 kilometrora egon behar direla esaten du. Arantzazuko harrobiaren handitze proiektuak ez du hau betetzen eta arriskuan jartzen du auzotarren, zein ibiltarien, segurtasuna. (Arantzazu bera 1.5 kmra dago eta hainbat baserri 100 eta 400 mt. artean).
- Mendi inguru hau Euskal Herriko balio paisajistiko gorenetakoa dela kontutan hartuta, harrobia handitzearen inpaktua basatia izango da.
- Arantzazuk dituen balore sinbolikoak bultzatzeko eta bisitariak erakartzeko administrazioek eginiko inbertsioak, guztiz kontrajarriak dira proiektu honen garapenarekin.

Arantzazu eta bere ingurunea guztion ondare delako, Arantzazu Defenda Dezagun plataformak deia eta gonbita zabala egiten du denona dena babesteko eta defendatzeko.



M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GENIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

SINADURA BILKETA

'Arantzazu Defenda Dezgun' plataformak harrobia handitzearen aurkako sinadura bilketa jarri du abian www.change.org atarian



'ARANTZAZU DEFENDA DEZAGUN' PLATAFORMA:

Arantzazuko auzotarrak, Arantzazuko Frantziskotarrak, Aloña Mendiko mendi saila, Oñatiko Eskalatzailak, Aloñako Lagunak, Oñatiko Gaztetxea, Oñatiko Naturzaliak, Bergarako Mendia Bizirik-Pol Pol mendi taldea eta Naturtzaindia Taldea



ELIAS ZUMALDE
auzotarra

Auzotarrok kezka bizi dugu harrobia handitzeko asmoa. Urte askotan jasan behar izan ditugu harrobi jardueraren ondorioak; inoiz gure baserri ingururaino erori izan dira harriak. Hautsak sortzen duen kutsadura ere hor dago. Baserriak 200-300 metrora egonda, ez dauka zentzurik harrobia handitzea pentsatzeak. Planteatu beharko litzateke nola regeneratu orain arte ustiatu dena.



MIKEL OTERO
Aloña Mendi-Mendi saila

Harrobia handitzeak izugarriko inpaktua izango luke, bai begietarako, eta baita ingurumen aldetik ere. Arantzazu eta inguru natural honetako baloreak bultzatzeko urteetan erakundeak egiten ari diren lana kontuan hartuz, halako kantera bat guztiz lekuz kanpo dago. Ere hori Natura 2000 sare barruan dago eta bertako bioaniztasunak lehentasunezko babes maila dauka.



IDOIA BOLLAR
Oñatiko Naturzaliak

Harrobia handitzearen aurka gaude, eremu horrek Natura 2000 Sarea hartzen duelako eta habitat oso garrantzitsuak dituelako babestu beharrekoak. Beraz, ez da onargarria inolako esplotaziorik egitea halako babes maila duen eremu batean. Legeak ere halaxe esaten du. Tamalez ez daukagu naturgune askorik geurean, eta dauzkagun horiek babestu egin behar ditugu.



PELLO ZABALA
Frantziskotarra

Harrobien leherketak egiten diren aldiro, beldurrez egoten gara Gomiztegin, eta Arantzazuko komentuan bertan ere nabaritu izan ditugu dardarizoak. Guk uste dugu nahikoa harri atera dutela jada, eta gelditzeko momentua dela. Arantzazu ez da hau. Eta legeak baldin badaude, betetzeko dira. Hain errez saltatzen dituzte lege guztiak! Ze formalidade da hau?



Portu kale, 5
20560 Oñati

Tel.: 943 78 12 65
Faxa: 943 78 07 85



Orain Oñatiarron zerbitzura!

Industria Hornidurak
Burdindegia

Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com

Literatura eta biktimak

Euskal Herrian indarkeria politikoak eragindako biktimen inguruko gogoeta egiteko literatura tailerra antolatu du Irene Gantxegik

Liburuak aizkora izan behar du; gure baitan daramagun izotzezko itsasoa hautsiko duen aizkora' esaten zuen Kafkak, eta iritzi berekoa da Irene Gantxegi Madina (Oñati, 1988). Literaturak ikuspuntu kritikoa eta iritzi propioa garatzen laguntzen duela uste du berak. Horregatik, literatura tailerra antolatu du, udal liburutegiaren laguntzarekin, fikziotik abiatuta, Euskal Herrian biktima ezberdinek pairatutako biolentziaren inguruko irakurketa kritikoa egiteko.

Azken 50 urteetan biolentzia politikoak Euskal Herrian sortutako biktimen inguruko gogoeta egiteko literatura tailerra antolatu duzu. Zein da helburua?

Biktima desberdinak aitortzea; ETak eragindakoak, eskuin muturreko taldeek eta Segur-tasun Indarrek sortutakoak... Biktimak jasandako minaren dimentsiora hurbilduz, indarkeria ikuspuntu kritiko batetik aztertzea da helburua. Eta horretarako literatura lagungarria dela uste dut.

Zergatik literatura, biktimen inguruko gogoeta egiteko?

Kafkak zioen bezala, "liburuak aizkora izan behar du; gure baitan daramagun izotzezko itsasoa hautsiko duen aizkora". Uste dut oso ondo definitzen duela liburu baten irakurketak gudan eragin dezakeena.

Nobelek izen-abizenak dituzten gizaki konkretuei gertatutakoa xehetasunez kontatzen digute, eta horrek bidea ematen digu pertsonaiekin enpatizatu eta identifikatzeko. Geu egoera berdinean egongo bagina, zer egingo genukeen pentsatzen hasten gara, eta horrela, iraginazioaren bidez, irakurlea hausnarketa sakon bat eta iritzi propio bat eratzen hasten da.

Uste dut iraginazioa oso

IZEN EMATEA
Azaroaren 11a
baino lehen
eman behar da
izena udal
liburutegian

beharrezkoa dela etorkizun hobe bat irudikatzeko, eta literaturak irudimena elikatzen laguntzen digu.

Tailerrean irakurriko ditugun nobeletako pertsonaiak jatorri ezberdineko biktimak dira. Istorioak fikziozkoak izan arren, gure gizartean jazotako gertakari ankerren adibide dira, eta liburu hauen irakurketak bake kulturaren sustapenerako ekarpen garrantzitsua egin dezakeela uste dut. Iraganean gertatutakoa ikuspuntu kritiko batetik aztertzen eta interpretatzen lagundu dezake.

Biktimei zor zaien aitortza da, hain zuzen, Euskal Herriko bake prozesuaren ardatzetako bat. Ildo horretan, egokia izan daiteke era honetako tailer bat. Jakina. Bizi dugun momentu



LITERATURA TAILERRA

“Bi nobela irakurriko ditugu; protagonistak -hainbat jatorritakoak- biktimak dira. Ondoren, liburu bakoitzeko bi saio egongo ditugu, gogoeta egin eta eztabaidatzeko”

R.P. 547/15

ANTSIETATEA
ESTRESA
FIBROMIALGIA
DEPRESIOA...

Psicologia Zentroa
ROSA RUEDA

Zubillaga Auzoa, 20

943 04 74 06
psicologia-rrueda@cop.es
www.psicologiarosarueda.com



Amaia Igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Diru laguntzen gestioa-Igogailuen proiektuak -Barne dekorazioa-Jarduera lizentziak

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati

historiko honetan uste dut oso inportantea dela gogoeta kritiko-koa egitea. Iraganean gertatutakoa ulertu behar dugu, etorkizunean errepika ez dadin, eta literaturak (imajinazioak) paper inportantea dauka horretan.

Zein izango da tailerraren dinamika?

Bi hilabete iraungo du, gutxi gora behera. Nik proposatutako bi nobela irakurriko ditugu, eta liburu bakoitzeko bi saio egingo ditugu, irakurritakoaz gogo-eta egin eta eztabaidatzeko.

Partaide bakoitzak diario edo egunkari moduko bat izango du, irakurketa prozesuan eta solasaldietan izandako gogoetak bertan idazteko. Saioak grabatu egingo ditut, bertan partekatutako iritziak eta hausnarketak aztertu eta ondorioak ateratzeko. Lantzen ditugun liburuek duten inplikazio etikoa aztertu nahi dut.

Lehenago ere egin duzu era honetako beste tailer bat, ezta?

Bai. Filosofia ikasketak amaitu ostean, doktorego tesia egiten hasi nintzen etika eta literaturaren arteko harremana aztertzeke. Zehazki, Euskal Herriko biolentzia politikoari buruzko nobelen irakurketak biktimen aitortzan laguntzen ote duen aztertu dut, eta horretarako literatura tailer bat antolatu nuen Bilbon. Lau nobela irakurri genituen gazteleraz eta oso abasgarria izan zen.

Eta orain ekimen hau Oñati-ara ekartzea pentsatu dut. Ilusio berezia egiten dit era honetako tailer bat nire herrian egitea, eta euskaraz.

Nori dago zuzenduta tailerra?

Irekia da. Gustatuko litzaidake jende gazteak parte hartzea, eta baita jende helduak ere. Oso modu ezberdinean bizi izan dute gure herriak jasan duen biolentzia 60 urteko gizon-emakumeek eta 18 urteko gazteek. Seguru nago nobelaren harrera oso ezberdina izango dela, eta hor sor daitekeen elkarriketa oso interesgarria izango dela. Adin, ideologia eta iritzi desberdineko jendea elkartzea gustatuko litzaidake.

Literatur fikziotik abiatuz, biktimia desberdinek pairatu duten biolentziaren irakurketa kritikoa egiteko interesa duen edonori zuzenduta dago ekimen hau. Iritziak partekatu eta irakur-esperientzia handitzeko gogoia duten guztiei

Euskaraz izango da tailerra?

Bai, baina ekintza honekin jarraitzeko interesa eta gogoia baldin badago, prest egongo nintzateke aurrerago gazteleraz egiteko beste tailer bat.


Non eman behar da izena?

Udal liburutegian, azaroaren 11 baino lehen. Liburutegian bertan egingo dugu tailerra.

“Nobela hauen irakurketak bake kulturaren sustapenerako ekarpen garrantzitsua egin dezakeela uste dut. Iraganean geratutakoa ikuspuntu kritiko batetik aztertzen eta interpretatzen lagundu dezake”



Irene Gantxegi Madina



MENDIKO KORRIKALARI TALDE BATEK GARBITU ETA TXUKUNDU DU AUZOLANEAN



Aizkorriko aterpea, berriro erabilgarri

Oihartzun handia izan du mendi-korrikalari talde honen ekimenak. Sare sozialetan eskegitako argazki batekin hasi zen dena. Aizkorriko aterpearen egoera penagarria salatzen zen bertan; dena gorotzez betea, abereentzako korta bihurtuta.

Erantzuna berehalakoa izan zen. Mendian korrika ibiltzeko zaletasuna duten bailarako hainbat lagun martxan jarri ziren. Hainbeste jende dabilen lekuan arropak aldatzeko babesleku bat ez egotea penagarria zela iritzita, aterpea garbitu eta erabilgarri uzteko auzolana antolatzea pentsatu zuten.

Egoera
penagarrian
zegoen
aterpea,
gorotzez
beteta



GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Zegamako udalari baimena eskatuta, irailaren 25erako jarri zuten hitzordua, eta dozena bat lagun elkartu ziren.

Gorotzak atera, garbitu, desinfektatu, ormak lijatu eta margotu egin zuten. Atarian dagoen burdin-sarea ere garbitu zuten, animaliak uxatzeko. Lan bikaina egin zuten, argazkietan ikus daitekeen moduan.

ATEA KONPONDU

Lanak borobiltzeko atea konpontzea falta da. Gainera, kanpoaldean labirinto moduko hesi bat egokitze asmoa dute, abereei sarbidea galarazteko. Horretarako, Zegama-Aizkorri lasterketako antolatzaileekin eta Euskadiko Mendi Federazioarekin harremanetan jarri dira, proiektua adostu eta lanak koordinatzeko. Ziurrenera udaberrian egingo dituzte lanak.

Kontua da, Aizkorriko aterpea erabilgarri dagoela berriz ere, mendi-korrikalari hauen



Aterpea garbitu, desinfektatu eta margotu egin dute. Atariko burdin-sarea ere garbitu dute, abereak ez sartzeko. Behean, garbiketa lanetan parte hartu zuten lagunetako batzuk.

ekimenari esker, eta orain mendizale guztion ardura izango da aterpeari erabilera egokia ematea, eta behar bezala zaintzea. Helburu horrekin, atari bat ere zabaldu dute facebook-en (facebook.com/aizkorribizirik) Aizkorriko aterpera doazen mendizaleen esperientziak partekatzeko, eta, bide batez, mendizaleen iradokizunak, iritziak edota kezak biltzeko.

Aizkorri bizirik taldekoek itsulapiko bat jarri dute Urbia-ko fondan, orain arteko gastuak ordaintzen laguntzeko.





Arantzazuko Ama



San Martin



Adosatua Kurtzekua



Kurtzekua

ZATOZ INFORMATZERA!!

italde

www.italde.com

Ramon Irizar kalea
T. 943 78 27 07

AZAROAK 25 - EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA

Denon ardura da arazo honi aurre egitea

Azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta, hainbat jarduera antolatu dituzte udaleko Berdintasun sailak eta herriko Sare Feministak elkarlanean.

Indarkeria matxistaren adierazpen ezberdinekin amaitu nahi badugu, denon artean ekin behar diogu. Horregatik, aurreko gogoeta berezia egitea eskatzen da, guztiona den arazo honi aurre egiteko gutako bakoitzak zer egin dezakeen hausnartu eta bakoitzaren esku dagoena egin dezagun. Gainera, egun hauetan antolatu diren ekimen berezietan parte hartzera dei egiten zaie herritarrei.

INDARKERIA MATXISTA OÑATIN

Emakumeen kontrako indarkeriaren gaineko azterketa egin

da urte osoan zehar Oñatin, eta emaitzak aurkeztuko dituzte hilaren 18an, horretarako antolatu den ekitaldian.

Horrez gain, mural margoketa, autodefentsa feministari buruzko hitzaldia, antzerkia eta elkarretaratzea ere egingo dira (ikusi egitaraua).

Azaroaren 25ean herriko plazan egingo den elkarretaratzean parte hartzeko deia luzatzen dute antolatzaileek. Jendarteak bere jarrera irmoa erakustea garrantzitsua da, egoera hori bizi dutenek gizarte babesa senti dezaten, eta indarkeria erabiltzen dutenak deslegitimatua izan daitezen.

Bide batez, etxez etxe banatuko diren puntu moreak lehioetan jartzera animatu nahi dituzte herritarrak.



ZAPATA GORRIAK

Iaz zapata gorriak bete zen plaza azaroaren 25ean, emakumeen kontrako indarkeria salatzeko, Elina Chauvet artistak Ciudad Juárez-en (Mexiko) egindako arte adierazpena geurera ekarri. Herritar askoren partehartzea eta elkarlanari esker atera zen aurrera ekimena. Herritar askok parte hartu zuten zapatak biltzen, margotzen, garraiatzen, plazan jartzen, dena jasotzen... Dena musutruk. Feminizidioa salatu eta indarkeria matxistaren biktimak gogoratzeko omenaldia izan zen; horrelakoak gehiago ez gertatzeko jendartearen konpromisoaren eta mugimendu feministaren lanaren adierazle bat.

Indarkeria matxistaren inguruan Oñatin egin den diagnostikoa aurkeztuko dute azaroaren 18an

A25 EGITARAUA

AZAROAK 18, OSTIRALA

Oñatin emakumeenganako indarkeriari buruzko diagnostikoaren aurkezpena. Euskaldun Berria aretoan (Bidebarrieta 18) 18:30

AZAROAK 23, ASTEAZKENA

Hitzaldia. 'Indarkeriari nola aurre egin'. Hizlaria: Maitena Monroy, autodefentsa feministan aditua. Euskaldun Berria aretoan, 19:00

AZAROAK 24, OSTEGUNA

Zine Kluba. 'Gett: el divorcio de Viviane Amsalem'. Kultur etxean, 20:00

AZAROAK 25, OSTIRALA

Elkarretaratzea Foruen enparantzan 18:30. Dei egiten zaie herritarrei parte hartzera, indarkeria matxistaren kontrako jarreara adierazteko. Balkoietan puntu morea jartzea ere eskatzen da.

AZAROAK 25, OSTIRALA

Antzerkia. 'El florido pensil. Neskak' (Ttanttaka). Santa Ana aretoan, 22:30.

AZAROAK 26, LARUNBATA

Mural margoketa, Errekalde eta San Lorentzo arteko tunelean, goizeko 10:30etatik aurrera.

Beltzez jantzita etortzeko deia

Azaroaren 25ean, ostirala, (18:30) plazako kiosko aurrean egingo den elkarretaratzera beltzez jantzita joateko gonbitea egin du Oñatiko Sare Feministak. Urtean zehar biolentzia matxistak erail dituen emakumeak gogoratzeko ekintza bat egingo da (bertan azalduko da zein den ekintza) eta asteburuan zehar egongo da ikusgai Foruen enparantzan.

ZINE KLUBA / AZAROAK 24

'Gett: el divorcio de Viviane Amsalem'

Israelen dibortzio eskubidearen alde borroka egiten duen emakume baten



istorioa ikusi ahal izango dugu azaroaren 24ko Zine Klub tartean (kultur etxean, 20:00). Israelen senarrak oniritzia ematen badu bakarrik da

zilegi dibortzioa, eta kasu honetan *Elisha*, senarra, ez dago prest. Beraz, *Viviane* emazteak borrokatu egin beharko du Auzitegi Errabinikoaren aurrean, bere ustez eskubidea dena lortzeko. Hala, prozesu gogor eta tragiko batean murgilduko da, gizartean marjinaltuta ez geratzeko.

ANTZERKIA / AZAROAK 25

El Florido pensil. Neskak

Gerraondoko Espainiako hezkuntza sistemen krudeltasuna jasaten duten bost neskatoren istorioa. erakusten duen antzezlan ikusi ahal



izango dugu azaroaren 25ean (Santa Ana, 22:30), Ttanttaka-ren eskutik.

PATRIARKATUA

Tan, tan, tan, txintxiña bezala eta belaunaldiz belaunaldi emakumeok normalizat onartu eta jasan ditugu patriarkatuaren arauak.

Zer da patriarkatua?

Literalki "aitaren gobernua", baina zehatzago esanda, menderakuntza eta hierarkia oinarri dituen egitura da, esklaboa eta jabearen logikan oinarritua. Menderakuntza hori posible egiten duena indarkeria da, begibistakoa zein ezkutukoa. Genero bereizketa eta hortik datozen botere harremanak dira egitura sostengatzen dutenak.

Zapalkuntza ardatz honen dinamiketan denok hartzen dugu parte.

Munduko populazioaren %50a emakumeak gara, baina, hala ere, ez gaude beste %50ren parean. Emakumeok menpe gaude. Gu eskulan merkea gara, gizartean nahiz etxean, esklabuak gara. Jarraitzen dugu %80 zaintza lanak egiten, musutruk.

Aurrerapauso garrantzitsuak izan dira, batez ere berdintasun formalean ikasi, gidatu, kontu korrante bat eduki, bozkatzeko eskubidea izan... Baina ekonomikoki bizi-iraute horrekin engainatu egin gaituzte, majo gainera, horiek lortuta ere ez baitugu patriarkatuarekin amaitu.

Maitasun erromantikoa oso ondo datorkio patriarkatuari, amodioa gure bizitzen erdigunean jarri eta dohainik eta errekonozimendurik gabe zaindu eta guztien beharreei erantzuteaz gain, **akabatu ere egiten baikaitu!**

**MUNDU GUZTIAREN GUSTOKOAK
IZATEKO AHALEGINARI UZTEN
DIOGUN EGUNEAN ETA GURE
BURUAREKIN POZIK ETA
INDARTSU SENTITZEN HASTEN
GARENEAN, GAUZA ASKO
JARRIKO DITUGU KILIKOLO!**

Beste tranpa bat edertasunarena da. Perfektoak izateaz gain, itxura perfektoa izan behar dugu. Garaiak, meheak, titi haundikoak, depilatuak, ile perfektoa, gazte betiko, ximurrik gabe, kanarik gabe... Inposaketa latza emakumeontzat kapitalismoaren interes komertzialei ezin hobeto

datorkiena.

Mundu guztiaren gustokoak izateko ahaleginari uzten diogun egunean eta gure buruarekin pozik eta indartsu sentitzen hasten garenean, gauza asko jarriko ditugu kilikolo! Patriarkatuaren mandatuei gola sartuko diegu!

BITARTEAN EZ GARA IXILDUKO!

Egoera honi buelta eman behar diogu!

Nola? AHALDUNDUZ!

Autodefentsa feministaren bitartez, emakumeon jabekuntzarekin.

Talde eta ekimen feministak indartuz eta sortuz, errekonozimendu politikoa lortuz.

Emakumeon arteko elkartasuna sustatuz, batera edozerri egingo baitiogu aurre! Eraso sexistak ez dira eraso isolatuak, patriarkatu eta matxismoaren lojikean hartzen dute daukaten zentzua!!!

Kaleak hartuz, askatasunez, libre mugituz, espazioak gureganatuz.

Erreferente berriak eraikiz, lan banaketetan, bikote eta familia ereduetan, emakumeon lana ikustarazi eta baloratuz.

Eliza katoliko eta bestelakoak, eta kapitalismoak eragindako inposaketa eta indarkeria molde ezberdinak salatuz, hauek biolentzia instituzionalizatu egiten baitute, heriotza eragiterarte.

Instituzioetatik biolentziaren aurkako benetako neurriak hartuz, errespetuz, emakumea biktimizatu gabe eta infantilizatu gabe.

Emakumeok bitartean erasoei aurre eginaz indartzen joango gara, bai bakarka, bai taldean! Batu gaitzen feminismora!!!

OÑATIKO SARE FEMINISTA.

'AUZOKO'

Erdal hiztunak euskarara hurbiltzeko helburua duen 'Auzoko' ekimena abian da laugarren urtez

Euskara ikasi nahi duten jatorri ezberdineko dozena bat lagun (Auzokideak) eta hauei laguntzera joaten diren herritarrak (Auzotarrak) elkartzen dira astero, euskara modu ludikoan praktikatzera.

Hona hemen horietako batzuen iritziak

Wednesday

Guinea-Bisau

“ Udan izan nuen 'Auzoko' programaren filosofiaren eta helburuen berri, eta oso interesgarria iruditu zitzaidan. Nik hamar urte daramat Oñatin, eta nahiko ondo moldatzen naiz euskaraz, baina Auzokora etortzen naiz euskara praktikatzera eta, bide batez beste batzuei laguntzera.



Adan

Frantzia-Maroko

“ Frantziar-marokoarra naiz gurasoen aldetik, eta duela bost urte iritsi ginen Oñatira. Gaztelekuan eman zidaten Auzoko programaren berri, eta aurten hasi naiz bertan. Ulertu egiten dut euskara, baina hitz egitea kosta egiten zait, eta helburu horrekin nator.



Eva

Argentina

“ Orain dela zortzi urte iritsi nintzen Oñatira, eta hiru urte daramat euskara ikasten.

Euskaltegia joaten naiz, eta Auzokora ere hasieratik nago. Euskara praktikatzeko aukera ematen dit, eta baita hizkuntza, kultura eta pertsona ezberdinak ezagutzek ere. Giro jatorra dago eta oso gustura etortzen naiz.



Sweejan

Nepal

“ Orain dela hiru urte iritsi nintzen Oñatira. Iaz hasi nintzen euskaltegian, baina

lan ordutegia dela-eta utzi egin behar izan dut. Auzokon orain dela bi urte hasi nintzen. Oso aberasgarria da; euskara praktikatzear gain, jende berria ezagutzeko aukera ematen du eta gustura etortzen naiz.

Jorge Ekuador



“ 14 urte daramat Oñatin, baina lana dela-eta, orain arte ez dut denborarik izan euskara ikasteko. Orain, denbora gehiago dudanez, euskara ikastea erabaki dut. Euskaltegian hasi naiz, eta Auzokon ere bai. Oraindik galduta nabil, baina ikasteko ilusio handia dut.



Suleiman Pakistan

“ Hiru urte daramat Euskal Herrian. Azkoitian bizi izan nintzen lehenengo, eta Oñatin azken urte eta erdian. Oso gustura nago bertan. Euskara ikasten ari naiz euskaltegian, eta Auzokon ere banabil, praktikatzeko. Euskara ulertzea eta hitz egitea da nire helburua



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

Julen Korkostegi / 'AUZOKO' programaren dinamizatzailea

“Kultura ezberdinak, euskara, inklusioa... Asko gustatzen zait ‘Auzoko’ programaren filosofia. Denok egin dezakegu gure ekarpena”

Topagunea elkarrekin eta udaleko Euskara sailak babestuta, ‘Auzoko’ programa jarri da martxan laugarren urtez. Julen Korkostegi da dinamizatzailea (Urko Egañaren ordezkapena egiten ari da), eta berak azaldu digu ekimen honen filosofia eta helburua.

Zer da ‘Auzoko’?

Euskaratik urrun dauden pertsonak (atzeritarrek edo bertakoak) euskarara gerturatzea eta, bide batez, herrian integratzen laguntzea helburu duen egitasmoa da, pertsona horien hizkuntzak eta kultur aniztasuna aitortuz eta baloratuz beti ere.

Jatorri ezberdineko jendea elkartu, eta guztien arteko komunikazio edo kohesio hizkuntza euskara izatea sustatzen du Auzokok. Azken batean, kuadrilla bat bezalakoa da, *Auzokideak* eta *Auzotarrak* biltzen dituen.

Zer dira Auzokideak, eta zer Auzotarrak?

‘Auzoko’ programaren bi hankak dira. Auzokideak dira euskarara gerturatu nahi duten pertsonak; Auzotarrak berriz, euskal hiztunak. Biak dira beharrezkoak ‘Auzoko’ programa aurrera eramateko.

Nor izan daiteke Auzokide eta nor Auzotar?

Euskararen mundura hurbildu nahi duen edonor izan daiteke Auzokide. Normalean kanpotik etorritako jendea izaten da, euskara ikas-

ten hasi berria dena. Baina bertakoa ere izan daiteke, arrazoi bategatik edo beste-gatik, orain arte euskararekin harremanik izan ez duena.

Auzotarra berriz, euskaraz hitz egiteko ohitura duen edozein herritar izan daiteke; euskara ikasteko gogoia duten pertsonen laguntzeko prest dagoen edonor.

Zenbat lagun elkartzen zarete?

10-15 bat auzokide etortzen dira jatorri ezberdinetakoak (Kolonbia, Argentina, Nepal, Pakistan, Maroko...) eta momentu honetan lau auzotar gaude.

Animatu egin nahi ditut herritarrak, batez ere gazteak, auzotar bezala parte hartzera. Ez du dedikazio handirik eskatzen, eta euskara ikasi nahi dutenentzat oso inportantea da harreman sarea handitzea.

Zein izaten da ‘Auzoko’ren dinamika?

Astean behin elkartzen gara (asteartetan, 20:00etan) Euskarategiaren aldameneko lokalean (Bidebarrieta 16), eta ekintza ezberdinak egiten ditugu, modu ludikoan beti ere, (mahai-jokoak, tailerrak, kantak, afari tematikoak...) euskara praktikatzeko.

Bestelako ekintzak ere egiten ditugu tarteka (trago bat hartu, herriko txokoak ezagutu, hitzaldi edo kontzerturen batera joan...) bakoitzaren gogo eta dispo-nibilitatearen arabera.

Zergatik zaude ‘Auzoko’ programan?

Asko gustatzen zait bere filosofia; kultura ezberdinak ezagutzeko aukera ematen du, inklusioa jorratzen du, eta, gainera, euskara ikasi nahi duen jendeari laguntzeko aukera ematen du.



“Animatu egin nahi ditut herritarrak ‘Auzoko’ programan parte hartzera *Auzokide* edo *Auzotar* bezala”

Lur Gorri ETXEZ ETXEO ZERBITZUA

Pentsuak • Lan tresnak • Haziak • Landareak • Lan erropak eta beste hainbat gauza...

lurgorridenda@gmail.com 943 905 740 - 663 384 052



Irudi korporatibo berria 50. urteurrena ospatzeko

Hasi berri dugun ikasturtea oso berezia izango da Txantxiku ikastolarentzat, 50 urte betetzen dituelako eta, gainera, konfiantzaren pedagogian oinarritutako hezkuntza eredu berritzailea jarri duelako abian. Eta berrikuntza prozesu horren baitan, irudi korportabiboa ere berritzea erabaki dute. Argazkian ikusten den moduan, txantxiku baten hiru hatz host berde baten gainean azaltzen dira logo berriak. Txantxikuaren hatzek ikastolako hezkuntza proiektuaren hiru etapei egiten diete erreferentzia, eta hosto berdeak berriz, naturari eta organikotasunari. Irudi berriaren birmoldaketa ere prestatu dute, 50. urteurreneko ikasturte berezi honetan erabiltzeko.

'KILOMETROAK-2017' JAIAREN AURKEZPENA

Azaroaren 11n, ostirala, datorren urteko irailaren 24an Oñatin ospatuko den Kilometroak festaren aurkezpen ekitaldia egingo da Foruen enparantzan, iluntzeko 20:00etan. (Eguraldi txarra bada, kiroldegian izango da).

KMK-17 festaren logoa eta leloa aurkeztuko dituzte bertan, eta baita salgai jarriko diren erropak ere. Aurkezpen ekitaldian herritar talde zabal batek parte hartuko du, (koreografiak, dantzak, kantuak...) Kilometroak jaia ez baita soilik ikastolaren jaia, herri osoarena baizik, hrreritik sortua eta herri osoarendako. Horregatik, urte osoan zehar antolatuko diren ekitaldietan parte hartzeko gonbitea herritar guztiei luzatzen zaie, guztion artean aberastu eta osatu dezagun urte eta jai berezi hau.

ERROPAK SALGAI

Oñatiko Kilometroak festarekin lotuta atera dituzten erropak aurkezpen ekitaldian bertan jarriko dituzte salgai, baina azaroaren 14tik aurrera Bakardadeko Ama kaleko 10 zenbakian zabalduko duten dendan egongo dira salgai urte osoan.

LEHIAKETA

TRIKITIXA EGUNEKO LOGOA AUKERATZEKO

Datorren urtean Oñatin ospatuko da Debagoieneko XIII. Trikitixa Eguna. Hori dela eta, egun horretara begira aterako diren kamiseta, kartel eta bestelakoetan erabiliko den logoa aukeratzeko lehiaketa deitu dute antolatzaileek.

Irudiak soinu eta panderoarekin zerikusia izan beharko du; baita herriarekin ere. Eskuz edo ordenagailuz aurkeztu daitezke. Lanak Jose de Azpiazu musika eskolako idazkaritzan aurkeztu behar dira azaroaren 28tik abenduaren 12ra. Irabazleak 100 euroko saria jasoko du 'Txanda' elkarte dendetan gastatzeko.

Gripearen kontrako txertaketa kanpaina abenduaren 17rarte

Urtero bezala, gripearen kontrako prebentzio kanpaina antolatu du Osakidetza, 65 urtetik gorako herritarrei, gaixo kronikoei eta haurdun dauden emakumeei zuzenduta. Gripearen kontrako txertoa hartzeko txanda eskatu behar da osasun zentroan (943035430). Iaz 2.200 txerto jarri ziren Oñatin, 65 urte edo gehiago dutenen %70 bakunatu.



**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

S distira
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solariuma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa

...

San Lorentzo 4 beheka | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

GIMNASIA EMOZIONALA

adimena lantzeko tailerra Distira estetika zentruan

>> San Lorentzo auzoko 4. zenbakian kokatuta dagoen **Distira estetika zentruak**, era guztietako tratamenduak eskaintzen dizkizu. Aurpegi zein gorputzeko atal guztiak itxuroso eta osasuntsu izan ditzazun. Orain baina, aurrerapauso bat eman nahi izan du eta bezeroen itxura zaintzeaz gain, adimen emozionala lantzeko tailer berezi bat ere abiatu du.



Zer da gimnasia emozional integrala?

Munduko Osasun Erakundeak aspaldidanik agerian utzi zuen osasunak hiru osagai nagusi dituela: Biofisikoa, psikoemozionala eta soziala.

Fisikoki eta osasun aldetik gizakia gehiago edo gutxiago, baina zaintzen dela, agerikoa da. Hala ere, gaur egungo gizartean, alderdi emozionalak berebizikoko garrantzia hartu du. Estresa, tentsioa, minak... sarritan agertzen dira. Zergatik? Kasu askotan alderdi psikoemozionalaen ditugun gabeziak sortzen dizkiguten egoerak izaten dira. Hutsune hau lantzea da terapia berritzaile honen helburu nagusia.

Zein da zuen proposamena?

Tailer hau adimen emozionala lantzeko bideratuta dago. Berau sustatu, eskuratu eta lantzea da helburua.

Horretarako ariketa eta dinamika ezberdinak antolatzen ditugu. Guztiekin bakoitzak bere burmuin barruan dituen emozio ezberdinak identifikatzen saiatzen gara.

Zer helbururekin antolatu dituzue tailer hauek?

Helburua gurera etortzen diren bezeroen adimen emozionala finkatu eta sustatzea da. Gure bizitzako edozein alorretan erabaki bat hartu behar dugunean, egokiena dena hautatzen saiatu beharra daukagu. Baina horretarako lehenik jabetu, asimilatu, ulertu eta egoera hori ondo erregulatzen ikasi behar dugu.

Dinamika ezberdinak erabiliz, gorputza eta adimenaren lotura bilatu behar dugu. Arazo bat daukagunean, gorputzeko zein ataletatik datorren identifikatzen saiatzen gara eta ondoren, irtenbidea ematea da erronka nagusia.

Gihar guztiak gorputzeko organo eta funtzio ezberdinetara lotuta daude eta hauen erantzuna ez da egokia izaten elikatzen duten sistema blokeatuta edo estresatuta baldin badago.

Guzti honekin bizitza estilo osasungarri bat sustatu nahi dugu.

Zer gai lantzen dira?

Autoestimua landuz, ikasgai emozionalak lantzea da bereziki eskaini nahi duguna.

Horretarako, kontzentrazioa ondo lantzea tailer honen gakoetako bat dela esan genezake. Polaritatea lantzen dugu pertsona bakoitzaren bi poloak aztertuz eta ondoren, bien arteko

oreka aurkitzea izaten da gure lana.

Alderdi ezberdinak lantzen ditugu: Posturalak, hezurrenak, giharrenak, birusak, bakteriak, nutrizio arazoak, erradiazioak... orokorrean, osasuna hobetu nahi duenari egokitutako ikastaroa da.

Zer ordutegi edo dinamika erabiltzen dituzue?

Taldeka edo banakako klaseak eskaintzen ditugu. Bezeroaren beharren arabera antolatzen baikara.

Astean behin edo birritan ematen ditugu saioak eta bakoitzaren erritmoaren arabera osatzen da egutegia. Multzokako dinamika ondo landu ahal izateko, talde murrituak antolatzen ditugu.

Zer egin behar da izena emateko?

Interesa duen orori, gure zentritik pasatzeko gomendioa egingo genioke. Bertan azalduko baitiogu tailerraren informazio guztia. Bestela, 943 78 08 86 telefonora deituta ere, izena emateko aukera egongo da.

“Pertsonen alderdi psiko-emozionala landu nahi dugu. Burua osasuntsu izatea oso garrantzitsua baita”

“Taldeka edo banakako saioak eskaintzen ditugu. Bezeroaren beharren arabera antolatzen gara”

» 2017ko ZERGA ORDENANTZAK

Zabor tasa (%10), kontribuzioa (%2) eta ibilgailuen zerga (%2) igoko dira

Gainerako zerga eta tasak izoztuta geratzen dira

Datorren urterako Zerga Ordenantzak onartu zituen udalbatzak aho batez urriaren 27ko osoko bilkuran. Irizpide orkor bezala, zerga eta tasak izoztuta mantentzea onartu zen, baina salbuespen batzuekin.

Hala, hainbat urtez izoztuta egon den zabor tasa %10 igoko da 2017an. Debagoieneko mankomunitateak jakinarazi duenez, GHKren (Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa) tratamendu kostuak %27 igo dira eta, beraz, zabor tasa %10 igotzea erabaki du Udalak.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (Kontribuzioa) eta Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko zergan ere %2ko igoera aplikatuko du udalak, inguruko herrietakoekin parekatuz. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan ere aldaketa bat egita onartu da; zerga-tipoa 2'20tik 2ra jeisten da, eta fakturazio tramoen arabeko koefizientea aplikatuko da, foru arauak ahalbidetzen duen eran.

HOBARI EZBERDINAK ONARTU DITU UDALAK

EAJk egindako proposamenak aintzat hartuz, bi hobari aplikatzea onartu du udalbatzak. Batetik, familia ugariei (%90 eta %15) arteko hobaria aplikatuko zaie (errentaren arabera) ibilgailuen zergan. Bestetik, diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE/RGI) jasotzen duten pentsiodunei %90eko hobaria aplikatuko zaie kontribuzioan eta obren gaineko zergan. EH Bilduk proposatu du neurri hau aplikatzea DBE/RGI jasotzen duten herritar guztiei.

Bestalde, EAJk proposatu zuen Guraso Bakarreko familiei (alargunak, bikoterik gabeko gurasoak, banandu edo dibortziatuak...) eta genero indarkeriaren biktima diren emakumei ere hobariak aplikatzea zerga kontzeptu ezberdinetan (kontribuzioa, ikastaroetako matrikulak eta ludoteka), baina mahai gainean geratu zen. EH Bilduk dio ados dagoela helburuarekin, baina hobeto zehaztu behar dela onuradun izango direnen definizioa, eta hori lantzeko mahai politiko-tekniko bat eratzea proposatu zuen. EAJk esan zuen bere ustez nahikoa argi definituta dagoela, eta pena dela onuradun izan litezkeen herritarrek hobaririk gabe geratzea. Aurrera begira, zerga ordenantza osoan genero ikuspegia txertatzearen alde agertu zen EAJk.

OÑATIKO IX. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Datozen egunetan banatuko ditu Udalak Oñatiko IX. Eskaparat Lehiaketan parte hartzeko izen-emate orriak eta lehiaketako oinarriak. Parte hartu nahi dutenek izen-emate orria bete eta hauetako lekuren batera eraman behar dute: udaletxeko harreraren, turismo bulegoan edo Sozioekonomia departamentuan (Bidebarrieta 12). Abenduaren 1ean itxiko da izen-emate epea. Informazio gehiago: 943003198 / enplegu@onati.eus



2017ko Udal Aurrekontuetarako herritarren proposamenak jasotzeko bideak zabaldu ditu EAJk

EAJ-PNVren udal taldeak hainbat kanal edo bide zabaldu ditu herritarren proposamenak jasotzeko 2017ko Udal Aurrekontuei begira. Batzokian jarri duten postontziaz gain, helbide elektronikoa (pnvonati.partaidetza@gmail.com) eta Facebook nahiz Twitter sare sozialak (<https://twitter.com/eajpnvonati> / www.facebook.com/eajpnvonati) ere erabil daitezke proposamenak egiteko. Bestela, jakina, zinegotziei aurrez aurre egiteko aukera ere badago, baina betiere azaroaren 15a baino lehen. Herritarren behar, eskaera eta iradokizunei erantzuna ematea da ekimenaren helburua, jeltzaleek adierazi dutenez.

HITZALDIA / AZAROAK 9

'Lurraren transmisioa gazteen instalakuntzan'

Debagoieneko Landa Garapena elkarteak, Foru Aldundiak, Hazi Fundazioak eta esku-aldeko udalek 2015-2020 eperako Landa Garapena Programa landu dute, lurraren transmisioan bailara

honetan dauden arazo eta oztopoei irtenbideak emateko asmoz. Horri buruz hitz egiteko Iker Elozegi (Euskal Herriko Laborantza Ganbarako teknikaria) eta Maite Aristegi (baserritarra) etorriko dira Oñatira. Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta 18) izango da hitzaldia, hilaren 9an, arratsaldeko 18:00etan. Bestak beste, zuzenbide zibileko lege berriak herentzietan eta transmisioetan duen eragina azalduko da, eta lurraren transmisioan gazteek dituzten oztopoak eta aukerak aztertuko dituzte.

IPARRALDERA IRTEERA

Ildo horretan, Ipar Euskal Herrian eman diren kasuen esperientziak jasotzeko asmoz, Aiherra herrira irteera egingo da azaroaren 26an, Iker Elozegik gidatuta. Parte hartzeko izena eman (656.781.415) azaroaren 21 aurretik.





Urte hauetan bezero izan zareten guztiokin ospatu nahi dugu urtemuga berezi hau. Azaroko hilean zehar gurean erosketa bat egiteagatik, ondorengo oparien zozketan sartuko zara:

eskerrik asko bezero guztioi!



* Zozketa abenduaren 21ean egingo dugu eta gure Facebook atarian ikusi ahal izango da. Ondoren, irabazleei telefono bidez deituko zaie.

* Sari guztiak bezeroaren beharretara egokituko ditugu.

ARKAUZ
Optika
AudiOlogia

Lazarraga kalea 2 behea
Tel.: 943 71 60 63

2017ko UDAL AURREKONTUAK

Datorren urterako aurrekontu orokorra lantzen dihardu Udalak, eta herritarren ekarpenak egiteko epea zabalik dago

Urte sasoi honetan udalak datorren ekitaldirako aurrekontu orokorrak lantzeari heltzen dio, abenduko Osoko Bilkuran onartzeko asmoz.

Aurrekontuak osatzeko hainbat iturri erabiltzen ditu udalak: lege gintzaldi plana, udal teknikari eta langileen proposamenak, alderdi politikoen ekarpenak eta baita herritarren ekarpenak ere.

Herritarren aldetik udalari ekarpenak eta proposamenak egiteko aukera ez da epe tarte konkretu batera mugatzen, izan ere, urte guztian zabalik daude zenbait bide udalarekin harremanetan jartzeko:

- Idatzizko eskaera ofizialak.
- Oñatiko web orriko 'idatzi udalari' atala.
- Udaleko zinegotzi/teknikariari hitzordua eskatzea.

2017ko udal aurrekontuak osatzeko aldera, bide hauek irekita jarraitzen dute herritarrentzat osoko bilkuran behin betiko erabakia hartzen den egunera arte. Animatu parte hartzera!

HAUR ETA GAZTEEN EKARPENAK

Aipatutakoez gain, beste hainbat gune eta bitarteko daude modu kolektiboan aurrekontuan eragin eta erabakitzea ahalbidetzen dutenak:

Aurten, lehen aldiz, Aurrekontuekin Arazerixan ekimena jarri du udalak martxan, herriko haur eta gaztetxoekin aurrekontuak modu parte hartzailean lantzeko. Adin tarteka banatuta, apirila eta uztaila bitartean herriko hainbat haur eta gaztetxo buru-belarri ibili dira gaikako proposamenak landu eta lehenesten, eta egindako lanaren entrega sinbolikoa egin zuten uztaileko osoko bilkuran.


Orain udala barne lana egiten ari da, sail edo zerbitzuka proposamenen horien bideragarritasun teknikoak baloratu eta dagokion justifikazioa egiten. Informazio hau oinarri hartuta udalak erabakiko du zer proposamen

AURREKONTUAK HITZ GUTXITAN

Labur esanda, aurrekontu orokorrean udalaren diruaren jatorria eta helburu edo zertarako zehazten dira, eta aurrekontuetan oinarritzen dira urteko plangintza eta bultzatuko diren ekimen eta proiektuak.

Udal aurrekontuek urte natural bateko iraupena izaten dute, urtarilaren 1ean hasi eta abenduaren 31a arte.

Udal aurrekontu batean, diru sarreraren aurreikuspena oinarri izanda eta udalaren osasun ekonomikoa aintzat hartuta, urte horretan zenbat diru, nork (udaleko zein sailek) eta zertan gastatuko den zehazten da.



Oñatiko udalaren gastuen atala 20 milioi €-koa izaten da gutxi gorabehera. Aldizkakoak edo errepikakorrek diren gastuengatik, atal honen zatirik handiena ia lotuta egoten da.

Hortaz, gastuen atalaren zenbatekoaren %10ean eragiteko aukera egoten da.



Aurrekontuekin arazerixan. Haur eta gaztetxoek modu parte hartzailean landu dituzte udal aurrekontuak, eta osoko bilkuran helarazi zizkiet proposamenak zinegotziei



eta zein modutan txertatu ahal izango diren 2017ko udal aurrekontuetan, eta ostean, haur eta gaztetxoei aurrez aurreko saio batean emango die hartutako erabakiaren berri.

AUZOTASUN PROGRAMA

Landa eremuetan kokatzen diren auzoei bideratuta, 2012an jarri zen martxan Auzotasun Programa. Udalak

urtero 100.000 €ko diru-poltsa erre-serbatu eta banatzen du 16 landa auzoen artean (bakoitzak duen bizilagun eta etxe kopuruaren arabera), eta auzo bakoitzak erabakitzen du zertan gastatu diru hori. Azken urteetan, esateko, auzolanaren bidez auzo-lokalak eraberritu, auzoko zerbitzuak egokitu edo ondarea berreskuratu da.

2016ko udal aurrekontuei herritarrek egindako proposamenen GAUZATZE MAILA

BUKATZEN EDO GUZTIZ GAUZATUTA: 6 proposamen

PROPOSATUTAKO EKINTZA:	AZALPENAK EDO INFORMAZIO OSAGARRIA:
-Herri barrua eta hau San Prudentziorekin lotuko duen autobus zerbitzua ezartzea.	-Herribusa jarri da martxan Ugarkalde eta Kasablanda artean. Hiru hilabetez eta proba moduan hasiera batetan.
-Musika Eskola alboko aparkalekua eta inguruak argiztatzea, eskolaren jardueraren zati handi bat arratsalde izaten delako.	-Aparalekua urbanizatu eta Musika Eskolako sarrerarainoko bidea egokitu da, baita inguruko argiteria hobetu ere.
-Foruen Enparantzako arkupeetako zoladura irisgarritasun unibertsaleko baldintzetara egokitzea.	-Plazako 3 arkupeetako zoladuran konponketa lanak egin dira, zoladura beraren eta inguruaren itxura eta estetika gordez.
-Aita Lizarralde kalea eta Martzelino Zelaia kaleen arteko bidegurutzea egokitzea eta argiztapena hobetzea.	-Semaforoa jarri da bidegurutzearen alde bietan, oinezkoek sakatuta gorrit jartzeko.
-Komun publikoetan haurrei fardelak aldatzeko mahaia jartzea.	-Falta ziren komunetan jarri dira fardela aldatzeko mahaitxoak.
-Paseatzeko ibilbideetan (San Martinen eta bidegorrietan) komun publikoak jartzea.	-Udalak urtean komun publiko berri bat jartzeko konpromisoa hartu zuen. 2016an San Martingo gunean jarri da komuna.
-San Martinen saski baloian jolasteko kanastak jartzea.	

AURRERATUTA: 2 proposamen

PROPOSATUTAKO EKINTZA:	AZALPENAK EDO INFORMAZIO OSAGARRIA
-Eltzia egitasmorako herri eragileekin adostutako proiektu arkitektonikoa bere osotasunean garatzea.	-Eltzian espazio berriak egokitzeko lanak esleitu dira eta 2017ko lehen lauhilabetearen barruan amaitzea aurreikusten da.
-Emakumeek historian izan duten garrantzia azpimarratzeko ekimenak antolatzea, haien ekarpena ikusarazteko, kale izenak aldatzean egin zen lanean sakonduz bestelako jarduerekin.	-‘Selma Huxley’ ikerketa beka prestatu da eta deialdia argitaratzear dago. Herriko historia genero ikuspegitik ikertu nahi da, gero emaitzak zabaldu ahal izateko.

HASITA: 3 proposamen

PROPOSATUTAKO EKINTZA:	AZALPENAK EDO INFORMAZIO OSAGARRIA
-Unibertsitate Etorbidea, Aita Madina Kalea, Aita Mortara Kalea, Lizaur Etorbidea, Kale Zaharreko bukaera eta inguruetak kantoia irisgarritasun unibertsaleko baldintzetara egokitzea.	-2016an Postetxetik Unibertsitaterako tartean arrapala jarri da eta Kale Zaharra eta Lizaur Kalearen arteko bidegurutzean espaloia irisgarri egin da.
-Olakua eta Ugarkalde auzoak lotzen dituen bidea irisgarritasun unibertsaleko baldintzetara egokitzea eta argiztapena hobetzea.	-San Lorentzo-Ugarkalde bidegorriaren lanen barruan gauzatuko da. 2017 hasierarako aurreikusita dago.
-Zebrabide guztien argiztapen maila berrikustea eta beharrezko neurriak hartzea.	-2016an Aita Lizarraldekoa eta Bidebarrieta-Auzobarri arteko argiztatu dira, eta 2017an beste gune batzuk aztertuko dira.

AZTERTZEN EDO HASTEKO ZAIN: 4 proposamen

PROPOSATUTAKO EKINTZA:
-Turismo baliabideei buruzko informazio paneletako planoak eguneratzea eta apurtuta dauden euskarriak konpontzea.
-Coworking-erako espazio bat jartzea, enpresa txikiek, ekintzaileek edo euren kabuz lan egiten dutenek espazioa partekatu eta ideiak elkarlanean garatzeko..
-Bidaurretatik Olapotorainoko tartean, bi norabideetan, lorategiak eta petrilak txukuntzea.
-Kiroldegiko kantxako lurzoruko materialaren egokiera aztertzea eta beharrezko neurriak hartzea

AURREKONTUAK ARAZERIXAN PROIEKTURA BIDERATUTAKOAK: proposamen 1

PROPOSATUTAKO EKINTZA:
-10-16 urte bitartekoentzako abentura parke bat jartzea (tirolina eta zuhaitz zirkuituekin) natur ingurune batean, San Martinen esateko, naturarekiko errespetuz

Kontzejupetik



Gipuzkoa
BERRIA

ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza
eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.: 943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Pintadak, pankartak eta kartelak

Aimar Uribesalgo

I nongo dudarik ez dut herritar asko-
Iri zatarrak iruditzen zaiela pintada,
pankarta eta kartelak. Bestalde, egia ere
bada beste batzuei ederrak iruditzen
zaizkigula eta poza ematen digula
herria horrela jantzita ikusteak. Izan
ere gure herriaren kasuan pintada,
pankarta eta kartelak herri mugimen-
duak bizirik dauden adierazle dira eta
gizarteak pairatzen dituen gatazka
anitzak guztion begien aurrean bista-
ratzen dituzte. Zapalkuntza nazional,
sozial eta abarren aurrean hain garrant-
zitsuak diren mobilizazioen propa-
ganda ere badira, gainera. Nik neuk
herri bat epaitzeko orduan nahiago
dut lehenik edukari erreparatu, aza-
leko itxurara mugatu beharrean, bai-
na estetika ere garrantzitsua denez,
eskerrak hamaika kartel, pankarta eta
pintadez apaindurik dugun gure Oña-
ti maitea!

4.000 euro BERRIari

Koldo Zumalde Barrena (BERRIaren
OÑATIko LAGUNAK)

Ez da atsegina izaten, baina beso
bila jotzen dugu: "Txosnaguneko
sukaldea, txosnaguneko sukaldea..."

LURRALDEBUSeko arduradunei

Oihane Aizpurua

Herri ikusezin, ezezagun eta hain txikia den honetan, baina aldi berean bakar-
ra eta goxoa den honetan, urteak daramazkigu jada ibilgailu publikoetan
diharduguna. Oker ez banago, 2005. urtean Gipuzkoako herritarrontzako
'Lurraldebus' izeneko zerbitzua jarri zuten martxan. Zerbitzu honi esker hainbat
herri daude elkarri lotuta eta autobusak etengabe ari dira hara eta hona gelditu
barik. Izugarria eta mirestekoa da gaur egun dauzkagun aurrerapenak eta
mugikortasunerako dauzkagun erraztasunak. Baina zerbitzu hauek errespetatzen
al dituzte ordutegiak? Entzuna dut ezetz eta nire kasuan gaur ere ez.

Gaur, Urriak 22, San Prudentzioko geltokian nengoen Bilbora joateko asmoz.
Esperantzak nituen 09:05etan autobusa iritsiko zela, nire buruari esan diot, bada
itxaron 15 minutu eta agertuko da. 15 minutu igaro ostean, ezer, 20 minutu eta
ezer, 25 ezer, 30 ezer. Azkenean amore eman dut eta Oñatira itzuli behar izan naiz.
Oñatira itzuli orduko beste 20 bat minutu gutxi gorabehera.

Baina bueno, jo dezagun harira. Ez da lehenengo aldia arestian esandakoa
gertatzen zaidala eta ez niri bakarrik ordea. Lurraldebus zerbitzuak pentsatu al du
egunen batean ordutegien garrantziaren inguruan? Edota puntualtasunaren
inguruan? Organizazio falta edo haratago joanda, "desmadre" honen ondorioz
egunero-egunero pertsona asko geldituko dira eskuak gurutzatuta autobus
geltokian zer egin jakin gabe beraien autobusa agertu ez delako.

Testu honen helburua ez da ordainetan zerbait nahi dudala, ezta inoiz ez dudala
berriz zerbitzu hau erabiliko ere. Baina bai, zuei, segur aski milaka bider esan
dizueten arazo hauek errepikatu, eta mila eta batgarrenean bada ere kasu pixka
bat egitea, ez dut erantzunik eskatzen ezta biharko soluzio bat ere. Testua irakurriz
gero bete dut nire helburua eta pentsatzen jartzen bazarete eta zerbitzua hobetzen
saiaitu, nire helburua guztiz beteko duzue, bai nirea eta bai Gipuzkoako herritarrona.

Beraz, zergatik ez egin ahalegin txiki bat Gipuzkoako herritarron mugikortasuna
ona izan dadin eta "Lurralde Bus" zerbitzuarekin denok arazo gabe, gustura senti
gaitezen?

**ARRIZABALAGA**
Aroztegia

**PAKITA**
Altzariak



Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia



Larraña auzoa, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI

Baserriko ogia, egurrezko labean

Eta erantzuna beti berbera: "Bai!". Isurtzen dugu izerdia; bezero urreak, bezero aseak, bezero maiteak. Eta egiten dugu balantzea: "Zenbaki gorriarik ez". Kezka eder bihurtzen da, zorra esker, lana ager.

Euskaltegia, Txantxiku Ikastola, Elkar Hezi, Lagun-Leku, eta zu, eta hura, eta haiek... ESKERRIK ASKO!

Ernaitik Oñatiko EAJ-PNVri

Jon Aiastui (Oñatiko Ernai)

Ez da denbora asko igaro Oñatiko jaietatik eta nazkatuta gaude dagoeneko. Oñatiko gazteak gara eta jaiak ospatu ditugu errespetuz eta utzitako zaborra jasoz errekatik. Gure lana mespretxuz hartu duzue, bota dugun izar-dia zikinduz.

Azkenengo asteetan twitterrean gus-tora ibili zarete gazteoi zikin, drogazale eta beste hainbat gauza deituz. Horregatik gabilta oñatiko gazteria defendatzen idatzi hontan. Lehenik eta behin galdera batekin nator: jeltzaleak ez al zarete kale zaharrean ibiltzen? Ez al duzue ezer zikintzen? Zuetako batzuk ibiliko dira tabernaz taberna eta agian ez duzue zuek zikinduko baina ez bota errru guztia gazteoi. Herria guztiona da, guztiok zikintzen dugu eta guztiok ibili beharko ginateke auzolanean hau garbitzen. Hori dela eta zuen proposamenarekin guztiz ados gaude, hurrengo urterako antolatu txosnen eta kale zaharraren garbiketa eta ikusiko gara. Hurrengo urtera arte!

Arantzazuko harrobia eta Oñatiko EAJ-PNV

Lourdes Idoiaga (EAJren udal taldea)

Azken egunotan jakin ahal izan dugunez Arantzazuko harrobiaren handitzearen inguruan EAJ-PNVk duen iritzia manipulatu eta honen inguruko informazio faltsua helarazi zaie oñatiarrei.

Egoera honen aurrean Oñatiko EAJ-PNVren udal taldeak argi utzi nahi du gai honekiko duen jarrera: inola ere ez gaude ados Arantzazuko harrobiaren handitze proiektuarekin eta gainera, Udaletik aurkeztu diren alegazioekin bat egiten dugu.

Era berean, kritikoak izan gara udal gobernuaren jokatzeko eta Eusko Jaur-laritzarekin gaia lantzeko moduekin. Zentzu honetan behin eta berriz azpimarratu dugu harrobiaren handitzearen inguruan sortu den zalaparta bideratzeko ez dela nahikoa Osoko Bilkuretan mozioak aurkeztea. Hau bezalako

gai garrantzitsu bat Eusko Jaur-laritzako ordezkariarekin zuzenean eta etengabe landu eta kudeatu beharreko gai bat dela deritzogu, modu honetara, haien erabakimenean eragina izateko.

Joxe Mari Urzelai gogoan

Jerardo Elortza

Fan xaku Joxe Mari be, azken-azkene-rarte makiña bat barri, argibide eta kurisiodade guri eta beste askori kontau ondoren. Izan be, oso buru onekua zan eta komestante aparta. Zenbat informaziño jaso dogun bere agotik gauza askoren gainian! Herriko eskolak, gerrako pasadizuak, Oñatiko euskerazko berbak, argazki zaharrak, lehengo ofizio eta lanbidien kontuak (fabriketakuak nahiz baserrikuak), eta beste hainbat gai agerketan ziran gure barriketaldittan. Galtzeko zorixan dagozen esaera zaharrak eta espresinuak gordetia gustaitten xakon, eta benetan maitte eben hikako aditz-formak ebaltia, emakumienak batez be. Gure aldizkari honek asko zor xao. Milla esker danagatik, Joxe Mari!

Oharra, deialdiak eta azken ordukoak

1980. URTIAN JAIXOTAKUON KINTTADIA

Azaroan 26rako 1980. urtian jaixotakuon bazkaixa antolaketan gabitz. 1980. urtian jaixotako oñatiarrak, urte horretan jaixo eta gaur egun Oñatin bizi dian kanpotarrak eta Oñatin jaixo eta kanpora bizittera fandakuak zauzai gonbidatuta. Bazkaixa Etxeberria jatetxian izango da, eta bazkaira etorriko zarienok 25€ sartu bihar dozue ondorengo kontu korrante honetan azaroak 18xa baino lehen (18xa barne): 30350005340050073184 (Kontzeptuan izena eta bi abizen jarri). Bazkaixa 14:30 / 15:00rak aldera izango da, aurretik, 13:00etan, Boga tabernan elkartuko gara txikiteotxo bat itteko. Harremanetarako: Facebook: laurogeiko kinttuak / 1980kinttuak@gmail.com. Animooo! Kriston girua egongo da musika eta guzti!!!

fontanería y calefacción

BELOKI

- > Iturgintzako material salmenta
- > Komun eta sukaldeetako erreformak
- > Azulejoen salmenta
- > Kalefazioa eta aire girotua
- > Diseinua, dekorazioa eta opariak
- > Obren koordinazioa

Erakusketa berria
Herriguneko osatuen

Aurreratu neguari eta berotu ezazu zure etxea Pellet berogailu ekologikoekin. Gasaren fakturan aldaketa igerriko duzu!!



Bakardadeko Ama 11 • Tel.: 678 46 54 58 • OÑATI

www.belokionline.com





NIRE MAISU ETA ERREFERENTZI PROFESIONALA

Juan Zelaia Letamendi jaunak agur esan zigunetik denboratxo bat igaro da, eta haren heriotzak eragin zidan atseka-bea gainditu ostean, lerro batzuk idatzi nahi nituzke, nire aita profesionala izan zenarenaganako miresmena eta esker ona adierazteko.

50. hamarkadan, gogoan dut, Hotel Onako mostradore atzean nengoela, ezkutatatu egiten nintzela On Juan sartzen zen bakoitzean. Haren presentzia gorenak, haren sendotasun eta nortasun handiak errespetua eragiten zuten ni bezalako mutiko batengan, eta aitari uzten nion zerbitzari lana. Oso harreman ona zeukan gure aitak Juan Zelaiaarekin, baita Eli Galdos eta Roberto Ordorikarekin ere. Hainbat bidaia ere egin zituzten batera.

Gero, 1962an, Cegasako administrazio taldean sartu nintzen, eta gauzak aldatu egin ziren. Haren enplegatua nintzen. Ugazaba-langile harremanak eskatzen duen seriotasunez hartu ninduen hasieratik. Bulegora deitzen ninduen bakoitzeko pribilegiatua sentitzen nintzen, baina hankak dar-dar izaten nituen.

Miresmen handiz gogoratzen ditut 'Cegasa-Oñati' eta, ondoren, 'Cegasa-Gasteiz'-eko langile guztiok Euskal Herrian zehar egiten genituen txangoak. Lagunarteko giroa sortzen zuten, eta Cegasaren alde lana egiteko gogoia areagotzen

Pernando Mendiguren Perratzaile



zuten, geure lantegiaren alde. Juan Zelaia diruz lagundutako txangoak ziren.

Gasteizerako lekualdaketak, 1967an, eztabaida eragin zuen txantxikuarren artean. Ez zen ondo ulertzen arrazoa, baina berak berehala isildu zituen komentario guztiak, jakituria handiko azalpenen bidez.

1969ko urte amaieran ULMak eskaini zidan Kanarietako delegatu lanpostua, eta maitasun handiz gogoratzen dut Juan Zelaia eta Roberto Ordorikarekin egindako bilera: 'zu ez zoaz Kanarietara; zu Madrilera zoaz Cegasarekin, eta Estatuko lehen delegazioko administrari orokorra izango zara' esan zidaten. Hankak dar-dar egiten zidaten, pozez. Gaztea, 25 urte, ezkondu berria, etorkizun oparoa aurrean... Shock egoeran egon nintzen egun batzuetan. Zalantzak nituen kargu hura betetzeko gai izango ote nintzen, erantzukizun handikoa baitzen, baina ezin nion hutsik egin.

Amaigabea litzateke Madrilgo egonaldian zehar Juan Zelaiaarekin bizi izandako bizipenak kontatzea. Bisita eta negozio inportante askoren lekuko izan nintzen. Hori bai, Madril joaten zenean beti galdetzen zidan ea gustura ote nengoen, aita batek semeari galdetzen dion moduan. Egiazta dezaket, Madrilgo Ministerioetan (Komertzioa, Industria...) banketxeetan, abokatu bulegoetan etab. errespetu han-

dia ziotela industria gizon bezala, ez hainbeste euskal herritar bezala.

Gogoan ditut, baita ere, Iparraldeko bunkerean igaro behar izan zituen derrihortutako opor egunetan, Donibane Lohitzunen egin behar izan nituen gestioak. Haren esana betetzea izaten zen nire gogoia. Goitik beherako abertzalea zen, benetako euskaltzalea, Euskal Herria ordezkatzeko guztiaren laguna, eta euskararen sustatzailea arlo guztietan (gizartea, ekonomia, kultura, kirola, ikastolak...). Benetako seme kutuna galdu du Euskal Herriak.

1981ean, arazo politiko baten ondorioz "hotelean" pasatu behar izan nituen lau hilabeteetan zehar laguntza eskaini zien nire emazte eta lau seme-alabei. Ez dut ahaztuko Madrilgo egonalditik bueltan egin genuen batzarra, cava eta guzti. Ez dut sekula izango Juan Zelaia guztiak egin zuen guztia eskertzeko adina karisma. Eskerrik asko, Juanito. Halaxe deitzea gus-tatzen baitzitzaion, niretzat beti On Juan izan eta izango den arren.

Duela bi edo hiru urte, Korpus egun batean, Upaingora joateko eskatu zidan. Aurretik, bere txakolina dastatzeko gogoia adierazia nion. Tamalez, ez nintzen joan, eta pena handia dut, benetan, adeitasun falta horregatik.

Nire aita profesionala izan zara, Juan Zelaia Letamendi, eta eskerrak ematen dizkizut guztiagatik. Zorte handia izan da niretzat zu ezagutu eta maisu eduki izana. Beti izango zara erreferentzia nire bizitzan. Eskerrik asko, Juanito, eta Jainkoak zeruan har zaitzala.

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

- Arazerixan -

JOSTAILU TRUKE



Gabonak datozela eta, Txaloka udal ludotekatik hirugarrenez jostailu truke egitasmoa jarriko dugu martxan. Egitasmo honen helburua krisiari aurre egitea, jostailuak berrerabiltzea, kontsumismoa murriztea, elkartasuna eta lankidetzaren bultzatzea eta jostailuei bigarren aukera bat ematea da.

Urtero lez, interesatuok 3 egun izango dituzue erabiltzen ez dituzuen jostailuak ludotekara ekartzeko (azaroak 28, abenduak 5 eta 12. Orduetgia: 16:45etatik 19:45ak arte).

-BALDINTZAK: Egoera onean eta osorik egon behar dira. Sexu bereizketa edo indarkeriaren aldeko jarrerak erakusten dituztenak ez dira jasoko (pistolak, ...). Jostailu txikiak multzoka trukatu dira (kanikak, kotxetxoak, ...) Haur bakoitzak gehienez 3 txartel jasoko ditu bueltan, nahiz eta jostailu gehiago ekarri daitezkeen.

Abenduaren 17an bildutako jostailuekin azoka burutuko dugu Txaloka udal ludotekan 11:00etatik 13:00etara. Azokara haur bakoitzak bere txartelak ekarri, eta jostailuengatik aldatuko ditu.

Aurten nobedade bezala, gurasoei zuzendutako hitzaldia antolatuko dugu. Gabonetan jasaten dugun publizitate kanpaina masiboen atzean dauden baloreez (sexismoa, indarkeria, ...) ohartu eta jostailu egokiak aukeratzen laguntzeko. Besteak beste, jostailuen sailkapenak, erabilerak... Hitzaldiaz gehiago jakin nahian hizlaria elkarrizketatu dugu:

“NOLA AUKERATU JOLAS EGOKIA” Hitzaldia

1-Zer eskainiko diguzu abenduko hitzaldian?

Abenduko hitzaldian, pertsona batentzat jostailu egoki bat aukeratzeko orduan, kontuan izan beharreko irizpideak zeintzuk diren azalduko ditut. Horretaz gain baina, jolasa eta jostailua zer diren azalduko dut. Bai eta, haur bakoitzak, bizi duen garapen etapa bakoitzean, dituen jolas beharrak eta horiek asetzeko erabili genitzakeen jostailuak zeintzuk izan daitezkeen azaldu. Hitzaldian baina, tarte egongo da jostailu mota ezberdinak ezagutzeko, euskarazko jostailuen berri izateko, sexismoak eta publizitateak jostailuen merkatuan daukan eragina aztertzeke eta nola ez, guraso edo entzulearen zalantzak argitzeke.

2-Nori zuzendua dago hitzaldia?

Hitzaldi hau batez ere, gurasoei edo familiako kideei zuzendua dago baina, edozein hezitzaile edo heldu ere ongietorria izango da.

Horretaz gain, jostailuek haurrengan duten eragina, Gabonetan jostailu gehiegi oparitzen ditugun, ... bezalako gaiak ere ikutuko ditugu. Beraz, animatu zaitezte eta etorri hitzaldira. Abenduaren 14ean izango da, asteazkena, Bidebarrietako Euskaldun berri gelan, 18:00etan. Haur zaintza zerbitzua egongo da Ludotekan.



ITSASO PAGOAGA ZALOÑA
HIZLARIA

MENDI ASTEA

AZAROAK 11-17



Nanga Parbat-era (8.126) neguan egindako igoera kontatuko du Alex Txikonek

Alex Txikon mendizale lemoztarra izango da Aloña Mendiko mendi sailak antolatu duen mendi asteko protagonista nagusia. Txikonek, Ali Sadpara pakistandarra eta Simone Moro italiarrarekin batera, Nanga Parbat-era (8.126m.) igo zuen aurtengo otsailean, neguan igo barik geratzen ziren bi zortzimilakoetako batera hain zuzen (K-2 da bestea). Laugarren espediziokide bat ere bazen tartean (Tamara Lungfer italiarra) baina honek bertan behera utzi zuen saiakera 8.000 metroko altuera gainditu ostean.

-40°ko tenperaturak jasan behar izan zituzten. Izugarri gogorra izan zela aitortu du Txikonek; teknikoki ere oso zaila, elurraren eta izotzaren baldintzen ondorioz. Zorionez, Txikon eta bere lagunak onik itzuli ziren gailurra zapaldu eta historia egin ostean, eta bere ahotik entzun ahal izango ditugu bertan izandako bizipenak. Dagoeneko K-2a neguan eskalatzea pentsatzen hasita omen dago.

Bestalde, Cecilia Buil Huescako eskalatzaile profesionalak bost kontinenteetan egindako igoerak erakutsiko ditu. Eta eskaladarekin jarraituz, Josean Mulas bergararrak eta Mikel Linazisoro eskalatzaile bikainak, gazteei zuzendutako jarraibideak azalduko dituzte. Zine Klub tartean, Himalayako Meru mendian egindako eskaladari buruzko film-dokumental ederra ikusteko aukera egongo da.

EGITARAUA

AZAROAK 11, kultur etxea (19:00)

- XIII Mendia eta Natura argazki lehiaketako sari banaketa.
- Cecilia Buil: 'Escalada en roca y hielo en los cinco continentes'

AZAROAK 15, kultur etxea (19:30)

- Alex Txikon: 'Nanga Parbat neguan'

AZAROAK 16, kultur etxea (19:30)

- Josean Mulas eta Mikel Linazisoro: 'Una vida en la vertical. Metodología de escalada para jóvenes'.

AZAROAK 17, kultur etxea (20:00)

- Zine Kluba: Jimmy Chin eta Elizabeth Chai Vasarhelyren 'Meru' filma

caravanas  ñate



• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Otadui zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Otadui zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

FEDERATU KANPAINA 2017

Aloña Mendi-Mendi saila

2017rako federatu kanpaina abian jarriko du Aloña Mendiko mendi sailak datozen egunetan. Dagoeneko federatuta daudenei automatikoki berrituko zaie txartela.

Federatu berriak eta es-talduran egin nahi diren al-daketak Aloña Mendiko egoitzan tramitatuko dira egun hauetan: azaroak 14, 16, 22 eta 24 (19:00-21:00).

Internet bidez egiteko aukera ere badago (alona-mendi.mendi@gmail.com), azaroaren 24a baino lehen.

Txartelak tramitatzeko honakoak behar dira: izen-abizenak; jaiotze data; hel-bidea; NAN zenbakia; kontu korronte zenbakia; telefonoa; e-posta; Federatu maila (Euskal, FEDME); gehigarriak (Frantziar Pirineoa, mundu osoa, BTT, pistako ski alpinoa, snowboard).

Prezioak, Euskal Mendi Federazioak asanbladan onartutakoak dira, eta bertako web orrian kontsulta daitezke.

Gogoratu, Aloña Mendiren irteeretan parte hartu ahal izateko federatuta egon behar dela.

MENDI IRTEERA AZAROAK 20

Ordunte mendikatea

Aloña Mendik azarorako antolatatu duen irteera Bizkaia eta Burgos arteko Ordunte mendikatera izango da, bertako kresteria egitera. 16km. inguruko luzeera du, zailtasun barik. Irteera, 7:00etan. Hilaren 17a baino lehen eman izena Aloña tabernan.

Hiru Haundiak mendi lasterketa irabazi du Iokin Garaik

Gorbeia, Anboto eta Aizkorri lotzen dituen Hiru Haundiak proba entzutetsua irabazita, denboraldi bikaina borobildu du Iokin Garaik. Lasterketan parte hartu zuten 1700 lagunaren artean azkarrena izan zen mendi korrikalari oñatiarra, 11:18:25ean osatuz 100 kilometroko ibilbidea. Bi aste lehenago Gredos-eko ultra traila irabazi zuen Garaik, eta uztailen 13. sailkatu zen Munduko Ultra Trail txapelketan, Euskadiko selekzioa ordezkatuz. Aitzol Guridi (13:23), Joseba Agirre (14:54), Iñaki Bikuña (15:22), Iban Isasti (16:18), Imanol Guridi (17:34) eta Aitor Zugasti (18:47) izan ziren hurrengo oñatiarrak Hiru Haundietan.

MAITE ZABALETA GASTEIZEN IRABAZLE

Gaika Kirolak taldeko Maite Zabaleta korrikalari oñatiarrak emakumerik azkarrena izan zen urriaren 9an jokatu zen Gasteizko Trailean, 25 km.-ko distantzian. Armentia eta Gasteiz arteko mendi ibilbidea 2:45:37an osatu zuen oñatiarrak.

AITOR OTAMENDI 'BASQUE EXPEDITION RACE' RAID-EAN NAGUSI

Urriaren 14tik 16ra Getxon jokatu zen raid-a irabazi zuen Aitor Otamendi oñatiarrak Euskal taldeko hiru kideekin batera. Kirol ezberdinak (kayaka, trekkinga, mendi bizikleta, rappela...) uztartzen dituen hiru eguneko proba gogorra da 'Basque Expedition Race' lasterketa.



Arg.: Felix Sánchez



Eskubaloiko epaileei zuzendutako liburua idatzi du Pablo Garciak

'Manual de entrenamiento físico para un árbitro de balonmano' liburua argitaratu du Pablo García oñatiarrak. Epaileen prestaketa fisikoa lantzeko oinarriak, planifikazioa, lesioen prebentzioa eta beste hainbat arlo jorratu ditu. Asobal mailako epaileen testigantzak ere jaso ditu. Liburua pgj40@hotmail.es helbidean eskura daiteke (10€).



Bi domina Euskadiko Karate txapelketan

Aloña Mendiko karatekek bi domina lortu dituzte Euskadiko txapelketan. Oier Alberdi 3. sailkatu zen Sub-21 mailan (-84kg.) eta Imanol Astudillo ere 3. sailkatu zen Junior mailan (-55kg.), biak ere Kumite modalitatean.




Tenis ikastaroa helduentzat

Aloña Mendiko tenis sailak antolatuta, helduei zuzendutako ikastaroak hasiko dira azaroaren 3an Zubikoan. Astearte eta ostegunetan izango dira saioak, bi mailatan banatuta: Hasiberriak (19:30-20:30) eta Hobekuntza (20:30-21:30). Oraindik badago lekua, beraz, animatu.

Varela nagusi Arrasate-Oñatin

Yeray Varela bere laugarren garaipena lortu zuen Arrasate-Oñati lasterketan. Aitor Mimenza eta Txomin Marañonek osatu zuten podiuma. Emakumetan Maialen Muñoz, Mari-sol Ramos eta Irune Arbo izan ziren azkarrenak. 215 korrikalarik eta 67 patinatzailek osatu zuten proba.



Musikegunak

OÑATIKO XXXVIII.

EGITARAUA

AZAROAK 6, IGANDEA

SANTA ANA, 19:00

Bay Trío

AZAROAK 13, IGANDEA

SANTA ANA, 19:00

Misterioari Dario ikuskizuna

AZAROAK 20, IGANDEA

SANTA ANA, 17:00

Opera Divertimento 'Txirula magikoa'

AZAROAK 27, IGANDEA

SANTA ANA, 19:00

Oñati Abesbatza eta ONCE Fundazioaren Alaia abesbatza

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura sailak eta Oñatiko udaleko Kultura sailak antolatuta **Sarrerak 6€** ('Txirula magikoa' ikuskizunarena 3,5€). www.bibe.me atarian salgai.

6
AZAROAK

BAY Trío

Joana Garwacka, Tronpa
Catalin Bucataru, Biolina
María José Barandiaran, Pianoa

Goi mailako hiru musikariek emango diete hasiera aurtengo Musikegunei. Joanna Garwackak ibilbide luzea du bakarlari gisa Polonia eta Lisboako orkestra filarmonikoekin. Beste hainbat orkestrarekin ere aritzen da. Egun irakasle dihardu Iruñeko kontserbatorioan. Catalin Bucataru errumaniarrak 10 urterekin debutatu zuen, eta orduz geroztik ibilbide oparoa egin du munduan zehar. 1992az geroztik Euskadiko Orkestrako kide ere bada. Maria José Brandiaran pianujoleak ere munduko orkestra askorekin eman ditu kontzertuak bakarlari gisa. A. Guinivart (1962) eta J. Brahms-en (1833-1897) obrak interpretatuko dituzte.



13
AZAROAK

'Misterioari dario'

Musika, poesia eta marrazkia uztartzen dituen esperientzia artistiko aberatsa

Hiru diziplina artistiko uztartzen dituen ekitaldia. Biziari egindako goraipamena; barruak bizidun bakoitzari egindako kantu zintzoa. Biziaren aurrean, bizidun bakoitzak izaten dituen galdera existentzial asko aurkezten dizkio ikusleari. Lau sortzailek hurbileko barne-esperientzia hori izaten lagunduko diote ikusleari, giro bildu, atsegin eta lasaian.



Peio Ramirez (**txelojolea**), Jon Goenaga (**pianujolea**), Andoni Salamero (**poeta**), Josu Maroto (**marrazkilaria**),

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Olakua 17 behe, esk. / Tel.: 722 733 712
argitagarbi@hotmail.com



Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat **saldu** edo **alokatu** nahi baduzu, **dei** iezaguzu".

20

AZAROAK

'Txirula magikoa'

Mozarten operaren egokitzapena

Familia giroan ikusteko

Lirikaren mundua, itxuraz zail eta ulertezina, ikus-entzule guztiei eta, bereziki, familiei eta gaztetxoei hurbiltzeko helburuarekin sortu zen Opera Divertimento taldea 2000. urtean. Aukera bikaina izango dugu, beraz, opera bat familia giroan entzuteko. 'Txirula magikoa' Mozarten opera ezagunenetakoa baten egokitzapena da, musika ategina eta adin guztietarako egokia den argumentua daukana. Obra fantastiko bat da, adiskidetasuna, jakinduria eta egia bezalako baloreak jorratzen dituena. Ikusleek ere parte hartzen dute ikuskizunean.



27

AZAROAK

Oñati Abesbatza eta ONCE

Fundazioaren Alaia Abesbatza

Aurten 50. urteurrena ospatzen ari den Oñati Abesbatzak eta ONCE Fundazioaren Alaia abesbatzak itxiko dituzte aurten Musikegunak.

Alaia abesbatza 1991n sortu zen eta bertako kide gehienak itsuak dira, edota ikusmenari lotutako urritasunen bat



dute. Urteen poderioz oso maila altua lortu duen abesbatza da. Gaur egun Vineta Iglesias letoniarrak zuzentzen du taldea, eta oso errepetorio zabala du, estilo, garai eta estetika desberdineko abestiekin. Abesbatza bizitza eta bizitzeko modua da bertako kideentzat; elkartasuna, autoestimua eta autonomia sustatzeko modua baita. Oñati eta Alaia abesbatzek saio bana eskainiko dute eta amaieran elkarrekin kantatuko dituzte zenbait abesti.

Ganbara Abesbatzak lehen saria lortu du Burgosen

Aitor Biainek zuzentzen duen Ganbara Abesbatzak palmaresa gizentzen jarraitzen du. Oraingo honetan Burgosen jokatu den XV. Antonio José estatu mailako lehiaketa irabazi du. Valladolid, Granada, Vigo, Madril eta Pontevedrako bost abesbatzek parte hartu dute oñatiarrekin batera, eta txapelketa honetan inoiz eman den puntuaziorik altuena jaso du Ganbara Abesbatzak; aurreko edizioetako irabazleen batz besteko puntuazioa 82koa zen, eta oñatiarrek 88 puntu eskuratu zituzten. Burgosko lehiaketa irabazi ostean, datorren urteko maiatzean Toulousen (Frantzia) jokatu den nazioarte mailako lehiaketara begira jarri da jada Ganbara Abesbatza.

Trikiti Jaialdia / azaroak 12



Lizargarate Trikitixa Elkartek antolatuta, Santa Ana aretoan, 17:30. **PARTAIDEAK:** Aitor Letamendia eta Harkaitz Lasa / Zabale Anaia eta Lurdes Alkorta / Josune eta Aitziber Otegi / Elizagoien Ahizpak / Maitane, Jagoba, Josu eta Maitane / Laja II eta Narbaiza / Ane Irurtzun, Malen Elkoroiribe, Maddi Guridi eta Nora Freire. **SARRERA:** 12 €. Arrano tabernan edo lizargarateelkartea@gmail.com helbidean eskura daitezke, azaroaren 5a baino lehen.

AFARI HERRIKOIA Jaialdiaren ondoren afari herrikoa izango da Gaztelekuan, **MP5** taldeak girotuta. Prezioa: 15 €. Txartelak Arrano tabernan salgai.

ESKaintza

90€

Guztia barne

Berezia

EZKONTZETAN

2016-2017 urteetan

Informazio gehiago,

Tel. 943 78 19 56

www.etxeaundi.com

Oñati Abesbatzaren deialdia

» Abesbatzako partaide ohiei gonbitea luzatzen zaie, azaroaren 19an eskainiko duten kontzertuan eta ondorengo afarian parte hartzeko

Oñati Abesbatza aurten ospatzen ari da bere sorreraren 50. urteurrena, eta Santa Zeziliatarako ekitalde berezia antolatu du. Oñati Abesbatzako partaide izan diren guztiak gonbidatu ditu ondorengo ekintza hauetan parte hartzera:

AZAROAK 19, ZAPATUA

- Arratsaldeko 7,30etan Meza Agustionetan ('Cantantibus' abestuko da)
- Meza ondoren kontzertutxo bat eskainiko dute denen artean. Oñati Abesbatzaren kanta ezagunenetakoak abestuko dituzte.
- Ondoren gaztaina-jana eta afaria Larraingain elkartean.

Beraz, Oñati Abesbatzeko kide izan den edonork ekitaldi hauetakoren batean parte hartu gura badu, eman dezala izena Txokolateixan, azaroaren 12rako, eta bertan jasoko ditu kantatuko diren abestien partiturak. Entsaio egunen berri ere bertan emango zaio. Afarirako txartelak 15 euro balio du. Anima zaitezte!

Abesbatzaren
50. urteurrena
borobiltzeko
ekitaldia
izango da



Belchiten izan da Oñati Abesbatza

Oñati Abesbatzak bisita itzuli dio Belchiteko abesbatzari. Iragan apirilean Belchiteko abesbatza Oñatin egon zen, eta bi abesbatzen artean Agustindarren Elizan kontzertua eman zuten. Urriaren 21etik 23ra Oñati Abesbatza Zaragozako Belchite herrian izan da.

Ostiral arratsaldean atera zen Oñati Abesbatzaren autobusa Zaragozako herrira, eta, gaua eman ondoren, larunbat goizean Belchiteko "Herri zaharra" bisitatzen egon ziren, hango abesbatzako kideek lagunduta. Belchiteko "Herri zaharra" 36ko gerran suntsitutako herria da. Bertan bataila latzak eman ziren eta herria zeharo hondatuta gelditu zen. Gerra ondoren batzuek herrira itzuli ziren arren, 50eko hamarkadan, herria abandonatzea erabaki zen, eta Belchite berri bat eraiki zuten. Gaur egun "Herri zaharra" Turismorako ikusgai dagoen herria da, pertsonok jabetu gaitezen gerraren ondorioei buruz. Ondoren, Nuestra Señora del Pueyoko Santutegia bisitatu zuten, eta ohikoa denez, Aita Madinaren Aita Gurea kantatu zuten bertan.



Arratsaldean Belchiteko San Martingo Parrokian bi abesbatzek kontzertua eskaini zuten; hasieran Oñatik, ondoren Belchitek, eta kontzertuari bukaera biek batera eman zioten. Mirengu Plazaolaren zuzendaritzapean, Oñatikoen erreperitorioa denetakoa izan zen, euskal musika, boleroak, Aragoiko kantak, Beltz espiritualak, eta abar. Eta jedearen txalo zaparrada beroa jaso zuten.

Igandean, Zaragoza piska bat ikusi, bazkari legea egin eta ilunkarako etxeratu ziren, oso eskertuta Belchiteko abesbatzak eskainitako jarrera beroagatik.

HITZALDIA

ETIOPIA: ANITZA ETA BAKARRA



- **Lekua:** Udal Euskaltegian
- **Eguna:** Azaroaren 24an, osteguna (18:00)
- **Hizlariak:** Karmen Arizmendi eta Rikardo Hernandez, irakasle ohiak eta esperientzia handiko bidaiariak.

Bidaia-irontzat, Etiopia herri ikusgarria eta ahaztezina da, ezustekoz eta kontrastez bete.

Gehienok honela irudikatzen dugu lurralde hura: paisaia lehorra, basamortua, lur antzuak eta pobrezia nonahi. Bada, irudipen hori ez da guztiz zuzena, basamortua egon badago ere, herriaren zatirik handiena berdea eta hezea da, Nilo ibaiaren ur gehienek Etiopian baitute jatorria. Eta gure aldean pobrea dela esan daitekeen arren, geologiaren, paisaiaren, historiaren, kulturaren, erlijioen eta hizkuntzen aldetik ikusita, oso aberatsa dela esango dugu: Rift harana, Danakileko eta Simien mendietako paisaia sinestezinak, Sabako erregina, Rastafarien ametsa, etnia bakan eta anitzak, parekorik ez duten Lalibelako elizak, Aliantzaren kutxa, laurogei hizkuntzatik gora, kafea, Lucy (gizakion arbaso ezagunena). Gai horiek guztiek dute lotura zuzena Afrikan dagoen baina, sarritan afrikarra ematen ez duen herri horrekin.

Emanaldian hori guztia berbaz eta irudiz azaldu eta partekatuko dute Karmen Arizmendi eta Rikardo Hernandez bidaiariak. Etiopia barru-barrutik ezagutu gura baduzue, hurrera zaitezte euskaltegia.

EKIMEN BERRIA UDAL LIBURUTEGIAN

Ipuin ibiltaria

Umeen artean ipuin bat idazteko ekimena jarri du abian udal liburutegiak

Udal liburutegiko erabiltzailea den familia batek egindako proposamena aintzat hartuz, **IPUIN IBILTARIA** izeneko ekimena jarri du abian Haur Liburutegiak.

Ekimen honetan parte hartu nahi duten umeei izena eman behar dute liburutegian.

Ipuina koaderno batean idatziko dute: ume bakoitzak edo ume talde bakoitzak orri bat idatziko du eta horrekin batera marrazki bat egingo du.

Ume bakoitzak koadernoak jasotzen duenean, idatzita dagoena irakurri eta hurrengo atala idatziko du, eta koadernoaren atzeko aldean egongo den idazleen zerrendan jarriko du bere izena.

Astebete izango du ume bakoitzak (edo taldeak) bere atala idazteko. Koadernoak Udal Liburutegian jaso eta entregatuko da. Azken umeari ipuina bukatu behar duela esango zaio.

14 ume (edo talde) onartuko dira gehienez lehenengo zerrendan. Azaroan zehar eman beharko da izena.

Umeek idatzitako ipuina izan behar du; hau da, idazten ez dakien ume batek parte hartu nahi badu, bere zatia idatziko duen beste ume bat aurkitu beharko du (anaia, laguna, lehengusua...)

Ipuina bukatzean, idazle guztiak liburutegian bildu eta ipuina irakurriko da. Gero, plastifikatu eta liburutegian utziko da nahi duenak irakurtzeko. Izenburua denen artean erabakiko da.

Ilusio handiz jaio den proiektua da, giza komunitatetik sortua, eta Udal Liburutegiko arduradunek animatu egin nahi dute jendea parte hartzera.

Haur liburutegiko
IRAKURKETA KLUBA

4-6 URTEKO HAURREI ETA GURASOEI ZUZENDUTA

Bularretik Mintzora egitasmoaren baitan Irakurketa-Kluba antolatu du aurten ere Udal Liburutegiak, Galtzagorri elkartearen laguntzarekin.

4-6 urte arteko haurrei eta hauen gurasoei zuzendutako saioak dira, Lur Korta ipuin kontalariak dinamizatuta. Haurren eta gurasoen artean irakurketa giroa sortzea, kalitatezko euskal bibliografia ezagutzea, eta hurrek giro lasaian irakurketaz gozatzea da helburua, besteak beste.



HIRU SAIO

Hiru saio izango ditu Irakurketa Klubak: **azaroaren 16an eta 30ean, eta abenduaren 14an**. Arratsaldeko 17:30etan hasiko dira, eta ordu eta erdi iraungo dute.

Izena ematen dutenek hiru saioetan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute. Hurrek heldu batek lagunduta joan behar dute saioetara.

Haurren liburutegian bertan, edo telefonoz (943716111) edo emailaz (liburutegia@onati.eus) eman behar da izena. Plaza mugatuak dira, kopurua bete arte.

IPUIN KONTAKETA, 6-9 URTEKOENTZAT

Ostegun Kontalariak ekimenaren barruan, urriaren 27an 6-9 urte arteko haurrei zuzendutako ipuin kontaketa saioa egongo da Udal Liburutegian, (18:00) Izaskun Mujikaren eskutik. Gonbidapenak banatuko dira aurreko astean zehar



AGENDA

11
URRIA

LEHIAKETA

> **AZAROAK 5**
OÑATIKO VII. LABURMETRAI RALLYA



Izena eman duten 20 taldeek hamaika ordu (08:00-19:00) izango dituzte lanak egiteko, egunean bertan jakingo duten gai edo objektuaren inguruan. Iluntzeko 21:30etan lan guztiak proiektatuko dira Santa Ana antzokian, eta ondoren sari banaketa.

HITZALDIAK

> **AZAROAK 29 / 19:00**
'REFLEXIONES SOBRE EL ESTADO ACTUAL DE LA INTEGRACION EUROPEA'



Hizlaria: Vincenzo Ferrari, Lege Sozio-logia erakundeko zuzendaria. Artixa taldeak antolatuta, Udalaren laguntzarekin. **Kultur etxean.**

KULTUR ASTEA
PAKE LEKUN

AZAROAK 7
Aloña Abesbatza eta musika eskolako taldeen kontzertua, Santa Anan, 18:00

AZAROAK 8
Zinea: 'St. Vincent'. Kultur etxean, 17:30

AZAROAK 9
Hitzaldia: Zoriontsuak al ziren gure nekazariak iraganean?'. Jose Antonio Azpiazu. Pake Lekun, 17:30

AZAROAK 10
Bingo berezia, 17:00

AZAROAK 11
Antzerkia. 'Itxaron gela' eta 'Eskutitza Ramoni' lanak Ikusi Makusi taldearen eskutik, Pake Lekuko bazkideentzat. Santa Anan, 17:30

AZAROAK 15
Hitzaldia: 'Pausoz pauso, seguru' Jaurilaritzako Trafiko Saila. Pake Leku, 17:30

AZAROAK 18
Gaztaina jana eta dantza saioa, Pake Lekun, 18:00. Prezioa: 1 €.

HITZALDI ZIKLOA

YOGAREN
INGURUAN,
OÑATIKO YOGA
ESKOLAK
ANTOLATUTA.



> **AZAROAK 22 / 19:00**
'EL YOGA DE LA PASIÓN DOMINANTE'

Hizlaria: Jose Ignacio Urreta Casado. **Kultur etxean.**

> **AZAROAK 23 / 19:00**
'YOGA, LA VÍA'

Hizlaria: Jesús López Minguea. **Kultur etxean.**

> **AZAROAK 25 / 19:00**
'LA MORAL NATURAL'

Hizlaria: Roman Agirre. **Kultur etxean.**

IKASTARO-TAILERRAK

> **AZAROTIK AURRERA**
IGANDE GOIZETAN

SUKALDARITZA ETA ELIKADURA OSASUNGARRIA
Azarotik aurrera talde berria hasiko da igande goizetan. Informazioa: 658 71 90 89

> **AZAROAN ZEHA**
FIELTRO TAILERRAK

HELDUAK: Eskuko poltsak egiteko tailerrak. Azaroak 5, 6, 12 eta 13 (10:00-13:00). Tinte naturalak. Azaroak 19, 20, 26 eta 27 (10:00-13:00).

HAURRAK: Fieltro tailerrak, azaroko larunbat eta igandetan: 15:30-17:00 eta 17:30-19:00.

Informazio gehiagorako deitu: 645499235 edo Facebook-en (lanatalan).

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



BATUAK S.L.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfona: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50



KONTZERTUAK

> AZAROAK 11 / 22:00

ERASO!

Zarauztarren 20 urteko ibilbideko kantak. *Gaztetxean.*

> AZAROAK 18 / 22:00

MIKEL URAKEN + MONTAUK

Santutxuko bakarlariak disko berria aurkeztuko du (Folk amerikarra). Gasteizko Montauk taldeak rock intimista lantzen du, testuei garrantzia berezia emanez. *Gaztetxean.*

> AZAROAK 25 / 22:00

GABEZIA + MELTDOWN + LATZENEN BERTSIOAK

Lasarte eta Hernaniko rock taldeak. *Gaztetxean.*

IKUSKIZUNA

> AZAROAK 20 /

IPUIN MUSIKATUA

'Mara Feat Milay'. Igor Arzuaga musikariak eta Mikel Ayllon idazlek prestatutako ikus-entzunezkoa. *Gaztetxean.*

ANTZERKIA El Florido pensil 'neskak'

> AZAROAK 25 SANTA ANAN, 22:30

Gerraondoko Espainiako hezkuntza sistemaren krudeltasun absurdu eta zentzugabea jasaten duten bost neskatoren egunerokoa kontatzen du Ttanttaka taldearen lanak. Fernando Bernués eta Mireia Gabilondok zuzentzen duten lanean aktore ezagunak ikusiko ditugu: Loli Astoreka, Gurutze Beitia, Teresa Calo, Elena Irureta eta Itziar Lazkano. Sarrera: 10 € www.bibe.me atarian salgai

MUSIKA

> AZAROAK 27 / 12:45

MUSIKA BANDA

Musika bandaren kontzertua. Santa Ana aretoan.

FORMAKUNTZA JARDUNALDIAK GAZTETXEAN

Gaurkotasuneko zein ikuspegi historikotik zeresana ematen duten gai sozio-politiko ezberdinen inguruko formazio saioak egingo dituzte Antixena gaztetxean azaroan zehar. (Datak zehaztu gabe zeuden erredakzioa ixtean). 'Gizarte industrialari kritika (izan kapitalista, izan komunista)'; 'Borroka armatua eta kartzelak' liburuaren aurkezpena Zuriñe Rodríguez egileetako batekin; 'Pakito Arriaran arrasatearraren biografia jasotzen duen liburuaren inguruko lanketa. ETA eta FMLNko (El Salvador) kide izan zen, militarrek hil zuten arte'; Eskolaren kritika, ikuspegi desberdinetatik; 'Harrobiaren kontra egiteko dauden argumentu desberdinak'; 'Igor Meltxor ikerlariaren azken proiektua'.

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



DVD

"Steve Jobs"



DVD

"El viaje de Arlo"



DVD

"La juventud"



DVD

"Anomalisa"



DVD

"Mustang"



DVD

"Zootropolis"

MERKATU TXIKIA

> **Garajea** salgai edo errentan. Ugarkalde 14, lehen solairua. Azalera, 22,5m². Ate automatikoa. Telefonoa: 666442398.

> **Etxebizitza** edo logela bila nabil alokairuan hartzeko. Deitu: 602152310..

GUARDIAKO FARMAZIAK



ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16

Azaroak 4, 5, 6, 14, 15, 23 eta 24, eta abenduak 2, 3 eta 4.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22

Azaroak 7, 8, 16, 17, 25, 26 eta 27, eta abenduak 7 eta 8.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58

Azaroak 9, 10, 18, 19, 20, 28 eta 29, eta abenduak 5 eta 6.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28

Azaroak 11, 12, 13, 21, 22 eta 30, eta abenduak 1.

EGUR-LAN

AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.

BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk

san miguel kooperatiba

943 781 217

kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

Ez kikildu, ez lotsatu

EUSKALDUN KOPURUA



Itturixa: *Euskararen Datu-Basea, 2011

*Euskeriaren Datu-Basia (EDB) euskeriaren datu estatistikuen biltegi bat da, Soziolinguistika Klusterrak eta Aztiker-ek alkarlanian egindakua. Egitasmo honen helburu nagusixa, euskeriaren gaiñan dague informaziño estatistiko sakabanatua batu, bateratu eta danon eskura jartia da.

Oharra: Portzentajiak biribil barruko lurralde bakoitzaren biztanliari egitten xaue erreferentzia.

Datu horreiri kasu egiñaz, herrixan bagara 7.952 euskaldun, eta moltzo horretako gehixenak bertako berbetia ezagutu eta egitten dogu.

Debagoixenian, berriz, 38.135 lagun dira gure antzeko berbetia ebaltan daueiñak. Eta Deba arruan edo ibarrian, 113.573 bizilagun bizi bagara, horreittako 69.398 euskaldunak gara, % 61,10, eta eurak danakin antzekotasun haundixa dakogu hizkuntza kontuan.

Eta, azkenik, Euskal Herriko mendebaldian bizkaieria egitten da eta horren barruan gagoz gu: 200.400 euskaldun ei giñan bizkaieraz berba egitten gebenak, euskaldun guztien %33 (Euskal Dialektologiaren hastapenak, UEU, Iruñea 1983) liburuaren arabera. 2011ko datu barrixoneik, berriz, diñoskue bizkaieraren eremuan 419.778 euskaldun gagozela, guztien % 45,49.

Beraz, bizkaieraren eremuan bizi gara euskaldun gehixenok eta bizkaieria da, zubereriarekin batera, elementu morfologiko eta esamolde arkaikuenak gorde dittuena.

Horrez gain, geure berbetia lantzeko materialik etxaku falta, hor dittugu danon eskura, bestiak beste, Candido Izaguirreren hiztegia, *Oñatiko euskeria* gramatika-liburua, Manuel Umerezen literatur lanak -gure klasiko bakarrarenak-, eta barrixaguak -horrein artian aittagarrixenak Olaitturri kultur taldekuak, *Anexiñua oñatiarrez*, adibidez-, baillarako idaztarauak, *Arrate* eta *Bizkaia* irratixak (azkenengo honek 25 urte bete zittuan 2015ian), bideo-pasartez osotutako bi web orri: **ahotsak.com** eta **euskalkiak.eus** eta abar luzia.

Zorionez, gaurko egoeria ezta orain dala urte batzuetakua, ezta hurrik emun be! Pausu asko emun dittugu eta herriko euskeria ikasi eta ebali gura dauenak ezta aitzakixarik. Oñati, beste kontu danetan moduan, hizkuntza kontuan be ezta isla bat, baillarako herrixakin era guztietako hartu-emunak dakogu: pertsonalak, hizkuntzazkuak, kulturalak, ekonomikuak eta abar; arrua be hor dago eta mendebaldiak be pisu haundixa dako guregan. Gure auzoko diran horreik danakin harreman saria josten goiaz egunetik egunera eta frutuak agerketan doiaz; beraz, geuriari eusterakuan **ez kikildu eta ez lotsatu**; izan be, batzuk uste daueiñaren kontra, ezkara hain gutxi eta aguan dabigun hizkuntzia ezta hain kaxkarra; aldrebes: geuriak eztao beste iñorenaren inbidixarik, zezoz faltaittekotan, gaiñeko hautsa kentzeia eta plazaraketia besterik eztao falta!



EUSKALKIXEN MAPIA (Koldo Zuazo, 1998)



Oñatiko bizikleta-karrerarik famauena

Aloña-Mendi kirol alkarteko txirrindularitza-sailak bere 50. urteurrena ospaketako liburu bat aurkeztuta izango dau, lan-txo hau kaleratu orduko. Egixa esateko, gorabehera batzuekin, **tradiziño luzia eta aberatsa euki dau Oñatik bizikleta-munduari dagokixonian**. Ixa ehun urtekua: 1920 eta 1930eko hamarkadetan antxiñako Aloña-Mendi, Oñate-Sport eta C. D. Oñate izeneko kirol alkartiak jardun euen, hurrenez hurren, karrerista-taldiak eta lasterketak aurrera ataraten gure herrian, eta emaitza oso onakin, gaiñera. Ahalegin hareik gerra ostian be jarraitu euen Txantxiku Txoko alkartiaren ardura peian urte askuan. Eta oraingo Aloña-Mendi izan da azkenengo gizaldi-erdi honetan arlo horri eutsi xauena.

Zenbat txirrindulari, antolatzaillak eta afizionadu txantxikuarrek parte hartu ete dau bizikletiarenguruz Oñatin eta enparuetan izandako ekintza eta ikuskizun deportibuetan! Ezta gure asmua gaur eta hemen horreik aittaketia, horretarako orrialde ugari biharko lirakeelako. Baiña **bi fotografia honein bittartez omenalditxo apala eskiñi gura dostegu luzaruan gure artian afiziño horren sugarra ixututa mantenidu dauen herrittar guztiai.**

Zortzi-beratzi urteko umiak giñan artian, baiña oso ondo gogoraketan dittugu **1953ko martixaren 8xan** eta aurreko egunetan Oñatin bizi izan gittuan esperientzia ahazteziñak: urte haretan hemen ikusi geben **munduko ziklo-kros txapelketara** hamar herrialde-tako korredoriak eta teknikoak, dozenaka periodista eta aginttari eta millaka karrerazale eta kurioso etorri ziran trennez, autobusez, kotxe txikiz edo bizikletaz. **Ehundaka oñatiarrek hartu eben parte kirol gertaera famau haretan:** pertsona helduak aurreko hillabetetako prestakuntzetan, eta gazte pillia, neska nahiz mutil, egun bereko antolamendu-lanetan; eta jakiña, baita herriko tabernari, ostalari eta transportistak be. **Franco eta bere ingurukuak pozik geratu ziran,** gerra ezkerro halakorik etzalako ezagutu diktadurapeian.

Frantsesak izan ziran jaun eta jabe sailkapenian: **Roger Rondeaux txapeldun, Gilbert Bauvin bigarren eta André Dufraisse hirugarren; Joaquim Filbá katalanak bosgarren puestua eskuratu eben eta Julian Agirrezabal durangarrak zazpigarrena.** Ibilbidiak ixa bost kilometro t'erdiko zirkuituari lau buelta emuten otsan; gogorra zan, aldapa eta gorabehera askorekin. Horreittako bat zan argazki honeittan agiri dana, Kale Zaharraren akaberako **Kurtzekotik zelaixan gora Torrealderaiño** igoten ebena. Argazki batian **Pierre Jodet** frantsesa eta **Julian Agirrezabal** bizkaitarra samur ezaguketan dira. Helmugan be alkarrekin sartu ziran. Dana dala, garai triste eta zail hareik izateko, **a zelako jentetzaia** etorri xakun Oñatira! Ba zan, nunbait, zerbaitten premiña.

J. E.



COINBROKER

ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS



Urratsez urrats haziz, etorkizuna eraikiz



ATLETISMO SAILEKO BABESLE



COINBROKER

OÑATI

ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9
20560 Oñati / Gipuzkoa



943 089006



www.gipuzkoa.coinbroker.eus



oinati@coinbroker.eus